txintxarri
2020-12-30 ASTEAZKENA / 1528. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

Urte (_____)

(ERABIL EZAZU ZURE USTEZ EGOKIENA DEN ADJEKTIBOA, IRAKURLE)

Ges
ASEGURUAK
Urte berri on!
Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

✓Etxeko aseguruak
✓Komunitateak
✓Kotxeak
✓Dendak
✓Aurrezkiak
✓Istripuak
✓Enpresak
✓Bizitza aseguruak
✓Eta gehiago!

Pablo Mutiozabal kalea 2 - 1. solairua, 8. bulegoa - Tel. 943 36 58 99 - cristina_arteaga@ges.es - Lasarte-Oria

LUIS CAR
autobusak
LUIS CAR
2021 zoriontsua opa dizuegu!
• Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
• Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
• 15 plazako mikrobusak
• 55 plazako autobusak
• Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak
Uzturre plaza 1, LASARTE-ORIA • Tel./Faxa: 943 36 63 16 • Mugikorra: 629 461 897 • luiscarbus62@hotmail.com

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
2021 urte zoriontsua opa dizuegu!
• BARRUKO BERRIKUNTZAK
• TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN. VIPEQ F08 (EMULTSIOZ BOTATAKO ARTELAZKIA) ETA S.A.T.E. SISTEMA
• GREMIOEN KOORDINAKETA KOSTU GEHIGARRIRIK GABE
• BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA DUTXA EXTRALAUARENGATIK EGUN BAKAR BATEAN
Telefonoa
693 05 93 92
943 56 66 40
uraitz@uraitz.com
www.uraitz.com
BULEGOA:
Geltoki kalea 15, LASARTE-ORIA

2020. urtea

Urtarrila	4-5
Otsaila	6-7
Martxoa	8-9
Apirila	10-11
Maiatza	12-13
Ekaina	14-15
Egutegia	16-17
Uztaila	18-19
Iraila	20-21
Urria	22-23
Azaroa	24-25
Abendua	26-28
2020ari buruz	29-30



txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak
Julene Iraola, Uxue Odriozola, Lide Hidalgo, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Jose Lanchas, Iñigo Garcia eta Igone Mendizabal.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 688 68 35 10
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.350 ale

TXINTXARRIk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

TXINTXARRI

Errege Magoak, jaiak amaitzeko

Meltxor, Gaspar eta Baltasarrek urtero bezala opari asko banatu zituzten Lasarte-Orian urtarrilaren 5eko gauean. Lanari ekin aurretik, eguerdian, Atsobakar egoitzako egoiliarrak eta Ama Brigitarren komentuko mojak bisitatu zituzten, laguntzaileek gutunak jaso bitartean. Arratsaldean, berriz, goxokiak nahiz agurrak banatu zituzten, Oriatik erdigunera egindako kabalgatan.

TXINTXARRI

Ikasleak sukaldariz jantzi dira danborra jotzeko

San Sebastian eguna baino pare bat egun lehenago sukaldari jantziak soinean jarri eta danborradak egin zituzten herriko ikastetxeetako ikasleek zein irakasleek. Sasoeta-Zumaburuko gaztetxoak izan ziren makilak astintzen lehenak, Isla plazan aritu ziren guraso eta senideen aurrean. Sasoeta LHko kideek eta Garaikoetxea-Landaberrikoek, berriz, patioan egin zuten erakustaldia. Azkenak Landaberri LHkoak izan ziren eta berezia izan zen beraien saioa egun horretan bertan erretiroa hartu zuen Josu Garmendia irakasleari omenaldi hunkigarria egin baitzioten lankideek.

TXINTXARRI

Valdivia alkateari elkarrizketa

2019ko abenduaren 20an hartu zuen alkate kargua Agustin Valdivia sozialistak, Jesus Zaballosek dimisioaren ondoren. Txintxarri-k egindako elkarrizketan onartu zuenez, aukera "sorpresa handia" izan zen, "ilusioz eta gogotsu" onartutakoa. Legealdiko erronka nagusia udalaren barne jarduna gaurkotzea izango da eta kirol azpiegiturek izango dute lehentasuna.

TXINTXARRI

Hamar urtez, ziega eta herritarren arteko zubi

Harresi Guztien Gainetik taldeak antolatutako X. Errezitaldian euskal presoen hitzek oholtzara salto egin zuten beste behin. *Zubiak eraiki sormenari* izenburupean, zenbait artistek ahotsa eta gorputza jarri zieten, Cordoba eta Lannemezango espetxeak Lasarte-Oriarekin lotzeko; Jabi Gallaga, Aitzol Iriondo nahiz Ibon Fernandez Iradi eta kultur etxea bete zutenen arteko zubiak eraikitzeko. Kanta, dantza, bideo, audio eta abarren artean, hamarkada honetako oihartzuna eskertzeaz gain, egindako lanaz ere hausnartu zuten, aurrera jarraitzeko beharra berretsiz.

Jalguneren lana saritu du Michelin Lasartek

Enpresaren fundazioak 5.000€ eman dizkio elkarteari 'Está en tu mano' egitasmoaren baitan

Txintxarri

Jalgune Elkarteak herrian eta herritarrentzat egiten duen lana saritu du Michelinek. Enpresaren Espainia eta Portugalgo Fundazioak *Está en tu mano* ekimen soziala sustatzen du estatuan dituen egoitzetan. Lasarte-Oriako fabrikako langileek gehien bozkatu zuten egitasmoa izan zen Jalgunerena, eta ondorioz, 5.000 euroko saria irabazi zuen. Pili Bermejo kideak jaso zuen txekea elkartearen izenean. Ekitaldian Jokin Goeneaga langilea ere izan zen, hain zuzen ere, Jalguneri hautagaitza aurkezteko proposatu ziona. Bermejoren hitzetan, "sariak erakusten du elkarteak herrian eta herritarren artean daukan harrera, gure bizilagunek presente gaituzte eta oztopoak gainditzen laguntzen digute".

Beste irabazleak Aspace Burgos, Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartea, Altea Erakundea, ASPANAFOA eta Madrilgo Hemofilia Erakundea izan ziren.

Jalgune Elkarteko kide Pili Bermejok jaso zuen diru saria. TXINTXARRI

"Sistema berri bat" ehuntzeko greba orokorra hilaren 30ean

Ehunka lasarteoriatarrek bat egin zuten sindikatu eta eragile sozialek deitutako lanuztearekin

Txintxarri

Lasarteoriatar ugarik bat egin zuen Euskal Herriko Eskubideen Karta Sozialak deitutako greba orokorrarekin. Lanuztea egiteaz gain, herriko greba batzordeak antolatutako ekintzetan parte hartu zuten askok lan, pentsio eta bizitza duina aldarrikatzeko. Ekimen jendetsuena arratsaldeko manifestazioa izan zen, ehunka herritarrek parte hartu baitzuten. Egunean zehar grebak erdigunean eragin zuen gehien, auzoetan, berriz, jarraipena ez zen horrenbestekoa izan.

Greba urtarrilaren 30ean. TXINTXARRI

Jokin Goenaga musikaria. TXINTXARRI

Jokin Goenagaren erakusketa

Jokin Goenaga musikari lasarteoriatarrak bere ibilbidean idatzitako lanekin erakusketa egin zuen urtarrilean. Mercero gunean 107 obra jarri zituen entzungai QR formatuan. Bertaratutakoek sakelako telefonoarekin kodea eskaneatuta, doinuaren bideo bat jaso eta haiek entzuteko aukera izan zuten.

TXINTXARRI

Urte amaiera koloretsua

Mozorroak, kirola eta festa giroa. Osagai horiekin egindako koktelarekin egin zuten topa herritar askok, 2019ko abenduaren 31n, urteari amaiera koloretsua emateko. 416 pertsonak parte hartu zuten seigarren San Silvestre Lasarte-Oria proban: 332 korrikalarik, 72 ipar martxalarik eta hamabi patinatzailek. Horiek denak koordinatzen, berriz, dozenaka boluntariok.



TXINTXARRI

Furundarena, pentatloian nagusi

Ostadar SKTko Naroa Furundarena Euskadiko proba konbinatuetako txapelketan nagusitu zen 20 urtez azpiko eta absolutu mailako pentatloian. Lehiaketa orekatua egin zuen, bost probetan lehen hiru postuetan amaituta. 60 metro hesi lasterketan eta luzera jauzian garaile izan zen, eta azken honetan lortutako markak, 5,39 metro, Espainiako txapelketarako sailkatu zuen.

Aimar Sukunza korrikalaria. TXINTXARRI

Aimar Sukunza, trofeoak metatzen

Aimar Sukunza gazteak Gipuzkoak 18 urtez azpiko kroseko txapeldunorde trofeoa jaso zuen Eibarko Bolumburu krosean, lasterketa hirugarren postuan amaitu ondoren. Egun berean, 2019. urteko Euskal triatloi zirkuituko bigarren saria ere eman zioten.

TXINTXARRI

Zudaire junior mailako onena

Buruntzaldea IKTko igerilari Nahia Zudaire Madrilen lehiatu zen Euskadiko Taldearekin Igeriketa Egokituko Espainiako Txapelketan. Lau proba jokatu zituen: 100m. eta 400m librean, 100m. tximeletan eta 200m. lau estilotan; eta horien puntuak batuta, bera izan zen onena. Junior kategoriara aldatu arren, emaitza onak erdiesten jarraitu du lasarteoriatarrak.

TXINTXARRI

Ohitura zaharra berritu dute

Tradizioari jarraiki, makila eskuan oles egitera irten zen herritar ugari Santa Ageda bezperan. Landaberriko ikasleek kantuan egin zuten ikastetxean eta Ama Brigitarren komentuan; arratsaldean, berriz, kaleak girotu zituzten Zabaletako Bizilagunek, Erketz Dantza Taldeak, Xumelak eta Earra Bertso Eskolako lagunek.

Iñigo Zabaletaren kargu hartzea. TXINTXARRI

Emaitzaren aurkezpeneko irudia. TXINTXARRI

Iñigo Zabaleta, zinegotzi berria

Otsaileko ohiko udalbatzarrean hartu zuen zinegotzi kargua Iñigo Zabaleta sozialistak. 2019ko udal hauteskundeetan PSE-EEren zerrendako bederatzigarren postuan joan zen Zabaleta. Kargua hartuta, Jesus Zaballos alkate ohiaren dimisioak Udal Gobernuan eragindako hutsunea bete zuen.

'Lasarte-Oriako ahotsak' ondu dute

Badihardugu Euskara Elkartearen *Euskal Herriko ahotsak* ekimenak euskarazko ahozko ondarea jasotzea xede du. Jada, 362 herritara heldu da, tartean, Lasarte-Oriara. Udaleko Euskara batzordearekin elkarlanean, 23 herritar elkarrizketatu ditu garai bateko hizkera eta bizimodua jasotzeko.

Txantxoek jaia eta babesa ekarri dituzte

Otsaileko azken bi asteburuen protagonista izan ziren mozorroak. Euskal Inauteriena izan zen lehen txanda. Kolorez eta tradizioz bete zituzten kaleak kalejiran Zubietatik etorritako txantxoek. Lastozko kapelak, zakuak eta gogotik dantza eginda heldu ziren plazara iluntzean, senidetze ekitaldia egiteko. Urteroko ituna berritu zuten Zubietatik etorritako xomorroekin eta Kaxkamalo sutan erreta (ustez) herria gaitz guztietatik salbu utzi zuten.

TXINTXARRI

TXINTXARRI

TXINTXARRI

Ibon Fernandez Iradiri zigor etetea ukatu diote, beste behin

Prokuradoreak helegitea jarri zuen Parisko Dei Auzitegiak hartutako aldeko erabakiaren aurka

Txintxarri

Zigorrak Ezartzeko Frantziako Auzitegiak entzungor egin zion Ibon Fernandez Iradi preso lasarteaoriatarraren zigorra eteteko eskaerari, eta hura betetzen jarraitu beharko du Lannemezango espetxean (Frantzia).

2013an esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten, gaitz degeneratibo eta sendaezina; eta 2014an hasi zuen epaitegietako bidea, kartzelatik irtetea eskatuz.

2019ko azaroan auzitegi horretako epaile batek gaixotasuna eta kartzela bateragarri ez direla ebatzita, onartu egin zuen Fernandez Iradiren eskaera. Erabakiaren berri izan bezain pronto, ordea, prokuradoreak helegitea jarri zuen behin behineko deliberazioa atzeratuz.

Urtarrilean epaiketa egin zuten Parisko Dei Auzitegian eta epaileak argudiatu zuenez, teorian tratamendurako baldintza egokiak bete daitezke kartzelan.

Fernandez Iradi eta larriki gaixo dauden presoak aske uztea askotan eskatu dute. TXINTXARRI

TXINTXARRI

TXINTXARRI

TXINTXARRI

Laugarren dimentsioan barrena

Denboraren makinan sartu eta askotariko mozorroekin agertu ziren lasarteoriatarrak herriko txoko guztietan. Iraganak, orainak eta etorkizunak leku berean bat egin zuten jaiek iraun artean, mende askoren aldea zuten pertsonaiak bata bestearen ondoan jarrita. Ostegunetik igandera arte, askotariko ekimenak izan ziren: kontzertu bufoa, ikastetxeetako inauteri festa, Inahaldunak jaialdia edo Biyak Bat zaharren egoitzako festa.

TXINTXARRI

Poemetatik ateratako errimak

Seigarrenez, bertso afari literarioa egin zuen hil hasieran Irakurle Txokoak. Xirimiri elkartea lepo zegoen Uxue Alberdi, Ane Labaka eta Maialen Lujanbio bertsotan entzuteko. Iñigo Astiz idazle eta kazetari nafarrak poemetan oinarritutako gaiak jarri zizkien, umorez betetako "errezitaldi bertsolatuan".

Arteaga II.a-Urretabizkaia II.a finaletik kanpo gelditu dira

Promozioko Binakako Txapelketako azken aurreko fasean galdu dute aukera Tolosa-Salaberriaren aurka

Txintxarri

Axier Arteaga herritarra Promozioko Binakako Txapelketan lehiatu zen Urretabizkaia II.arekin bikotea osatuta. Nahiko irregular aritu baziren ere, finalerdietara sailkatzea lortu zuten, eta hilabete amaieran Tolosako Beotibar pilotalekuan Tolosa eta Salaberria izan zituzten aurrez aurre. Arerioek nahikoa zituzten 15 tanto finalerako txartela eskuratzeko, baina horiek baino gehiago lortu zituzten; 14-22 irabazi baitzioten Arteaga II.a-Urretabizkaia II.a bikoteari

Axier Arteaga pilotaria. TXINTXARRI

Kolore moreko aldarrikapenak nagusi

Martxoaren 8a aldarrikatzeko aurten ere ekintza ugari antolatu dituzte zenbait eragilek. Lasarte-Oriako Udalak kartel lehiaketa eta adin ezberdinentzako ekimenak burutu ditu; Lasarte-Moriak, berriz, akelarrea egin du lehenengoz Okendo plazan

Txintxarri

Olatu moreak beste behin hartu zuen martxoan Lasarte-Oria. Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, aldarrikapen berari lotutako ekimen ugaritan parte hartu zuten lasarteoriatarrek. Asteko azken egunean, igandean egokitu zen aurten, baina aurreko nahiz ondorengo egunetan ere berdintasuna aldarrikatzeko jarduerak izan ziren.

Udalak antolatutakoen artean, ohiko kartel lehiaketa egin zuten, baita adin guztietako herritarrei begirako ekimenak ere. 3 eta 8 urte arteko haurrek *Teresa printzesa morearen istorioa* ezagutzeko aukera izan zuten, eta 12 eta 15 urteko gaztetxoek *Berdintasunerako prest?* ginkanan parte hartzekoa. Helduei bideratuta, berriz, *Pase lo que pase* antzezlana eskaini zuen kultur etxean Makelur taldeak, eta jarraian, afaria eta dantzaldia egin zuten Casa Humadan.

Lasarte-Moriak deituta hainbat emakumezkok parte hartu zuen akelarrean. TXINTXARRI

Larunbatean, berriz, V. zunba maratoiarekin bete zuten Loidibarren pilotalekua. Kolore moreko kamisetan soinean, saio ederraz gozatu zuten parte-hartzaileek. Iluntzean, Lasarte-Moriak deituta, Akelarrea egin zuten Okendo plazan. Aurrez, Mercero gunetik abiatuta, piztutako lastargiak eskuan eta beltzez jantzita, zenbait kaletan barrena ibili ziren.

Igande eguerdian udal ordezkariak eta dozenaka herritar batu ziren Okendon egindako elkarretaratzean. Amaitzean, emakume zuzendarien idatzitako obrekin osatutako emanaldia egin zuen Zero Sette akordeoi taldeak, Mercero gunean.

TXINTXARRI

Andaluziako Egun berezia

Otsailaren 28an lau hamarkada osatu zituen Andaluziako Estatutuak, Andaluziako Egunaren ospakizuna are bereziago eginez. Semblante Andaluzeko kideek Ohorezko ardoarekin ekin zieten ekitaldiei ostiral iluntzean, Atsobakar auzoko egoitzan alkatea eta zenbait udal ordezkari batuta; eta asteburuan, dantzaldiak, meza rozieroa edota bazkaria ere egin zituzten.

TXINTXARRI

'Hankazikin' kaleratu du Barriok

Pablo Barriok *Hankazikin* liburua kaleratu zuen martxoan. Obrak 2007an Nafarroako antzerki eskolak eta Iruñeako Udalak antolatutako antzerki testu berrien lehiaketan euskarazko saria jaso zuen. 10 urtetik gorako haurrei zuzendutako lana Joseba Larretxea *Josevisky*-k ilustratu du.

Buruntzaldeako gazteek erraustegiaren aurka protestatu dute

Buruntzaldeako Ernaik deituta, ehunka gaztek parte hartu zuten Zubietako errauste plantaren aurkako manifestazioan. Lasarte-Oriako kaleetan barrena euren aldarrien berri eman eta otsail hasieran Zaldibarko hondakindegian gertatutakoa argitzeko eskatu zuten, bereziki, EAJren batzoki eta PSE-EE herriko etxe aurretik igarotzean. Ibilbidea osatuta, Okendon egindako adierazpenetan, hondakinen kudeaketa "negargarria" salatu zuten eta agintariei galdegin zieten Zubietako bezalako "alferrikako azpiegitura kutsakor eta garestiak" eraikitzeari uzteko. "Beharrezkoa da guztion bizitzak erdigunean

Protesta ekintzako irudia. TXINTXARRI

jartzea, ez gutxi batzuen etekin ekonomikoa". Artean, erraustegia probaldi fasean zegoen eta egunean 400 tona erretzen zituen. Agintariek hilabete amaieran ofizialki martxan jartzeko asmoaren berri eman zuten.

Ardo dastaketak Aterpea merkatari elkartearen eskutik

Laugarren urtez, Aterpea merkatari elkarteak lau ardo dastaketak antolatu zituen. Hogei bat herritarrek parte hartu zuten Buenetxea, Eguzki eta Zubieta tabernetan egindako katetan eta modu atseginean zenbait ardoren ezaugarriak ezagutzeko aukera izan zuten. Azkena, Viña de Marren egin beharrekoa, bertan behera utzi zuten koronabirusarengatik.

TXINTXARRI

'Martxoa Martxan', geldirik

Lasarte-Oriako Ernaik, Sorgin Jaiak eta Elebeltz Topaguneko kideek herriko gazteria aktibatzeko egitarau zabala prestatua zuten martxorako. Tamalez, ezin izan zuten ekimenik burutu pandemiak eragindako itxialdiren ondorioz.

Kaleak hustu ditu koronabirusak

Osasun pandemiaren egoeraren joera ezkorrak bultzatuta, Espainiako gobernuak martxoaren 14an Alarma Egoera ezarri zuen, herritarrak etxean gelditzera behartuz. Lasarte-Orian martxoaren 18an erregistratu zuten lehen kutsatua, eta hilabetea 21 kasurekin amaitu zen

Txintxarri

Txinako Wuhan hirian koronabirusa atzeman zutenean, inork gutxik pentsa zezakeen hilabete gutxian etorriko zena. Urrutiko birusak ekialdetik mendebaldera bidaia egin eta ia kolpean hankaz gora jarri zuen denen egunerokoa. Birusaren eragina nabaria egin zen heinean, agintariak neurriak hatzen joan ziren pandemiari aurre egiteko,

Etorriko zenaren lehen zantzua, martxoaren 12an heldu zen. Hezkuntzak ateak itxi zituen, zalantza eta ziurgabetasunez betetako etorkizuna zabalduz ikasturtearen inguruan; bereziki latza, unibertsitatearen atarian zeuden ikasleentzat.

Espainiako gobernuak Alarma Egoera ezarri zuen bi egun geroago, herritarrak etxean gelditzera behartuz, nahiz eta salbuetsitako zenbait egoeratan kalera irtetea ahalbidetu. Itxialdia 15 egunetarako agindu zuten hasieran, baina luzatzen joan zen berrogeialdia.

Saltokiak eta enpresak pertsiana jaisten joan ziren egunek aurrera egin ahala, eta ia denek lana egiteari utzi zioten. Michelin-Lasarten, adibidez, hasieran egun batzuetako etena zena, Aldi Baterako Lan Erregulazio bilakatu zen. Zenbaitek, gainera, gerora ez du ateak berriz zabaltzeko aukerarik izan.

Konfinamenduak erabat hustu zituen herriko kaleak. TXINTXARRI

COVID-19aren irudia hustutako kaleak eta betetako balkoiak izan badira ere, kutsatuen datuek erakusten dute larritasunaren neurria. Osasun Sailak ezagutarazitako datuen arabera, martxoaren 18an erregistratu zuten lehen kasua Lasarte-Orian. Biharamunean, jada, lau ziren; eta hilabetea amaierarako, 21.

Egoera txarrenetik gauza ona ere sortzen direnez, salbuespen egoerari modu kolektiboan erantzuteko asmoz sortu zen Lasarte-Oriako Babes Sarea. Martxoaren 15ean hasi ziren asmoari forma ematen, eta jendea batzen joan zen. 50 bat boluntariok herritarren beharrak asetzen lagundu dute: zaintza lanak arindu, bakardadeari leundu, edo erosketak egin, kasu. Halaber, *Elkartasun puntadak* ekimena ere martxan jarri zuten, talde zaurgarrienentzat musuko berrerabilgarriak egiteko.

Asteotako gertakariek erabat aldatu zuten egunerokoa, baina etorriko zenaren lehen eragina besterik ez ziren izan.

TXINTXARRI

Sagastik zilarra, Superkopan

Asier Sagastik bigarren postua amaitu zuen Ciutat de Barcelona Nazioarteko Txapelketa. LOKEko judoka 100 kilo azpiko mailan lehiatu zen eta bi judoka kataluniar gainditu behar izan zituen finalera iristeko. Azken borrokan Gocha Kurdiani izan zuen aurrez aurre eta ezin izan zuen mendean hartu.

TXINTXARRI

Buruntzazpi bikain, errepidean

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako juniorrek emaitza onekin hasi zuten errepideko denboraldia. Haimar Etxeberriak bi garaipen lortu zituen lehen hiru probetan, eta Beñat Carbayeda bigarren izan zen Eibarko Udaberri sarian. Egia-Zumy sarian, gainera, taldea podiumeko lehen koskara igo zen.

Ikasturtea ixteko ahaleginetan

COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz, herriko ikastetxeek egun batetik bestera ateak itxi eta etxetik heldu behar izan zioten ikasketa prozesuari.

Egora berrira moldatu eta ikasturtea salbatzeko ahaleginak egin behar izan zituzten ikastetxeetako ordezkari guztiek, horien artean, Batxilergoko 2. mailako ikasleek. Horren berri eman zuen TXINTXARRI-k.

Besteak beste, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu eta Goi Mailako ikasketak hasteko atarian zeuden lasarteoriatarren hitzak bildu zituen aldizkariak.

55,704 mm

XUMELA KIDS

Birtualki egikaritu eta kantatu

Otsailean, itxialdia iritsi aurretik hasi ziren lehenengo bilerak egiten. Taldearen sorrera hezurmamitzen ari zirela iritsi zen konfinamendua, eta gazteek osatutako kantu taldeak birtualki eutsi behar izan zion ibilbideari. Euskal kanta tradizionalak eta garaikideak abestuz ongi pasatzea eta belaunaldi gazteen arteko harremanak indartzea helburu hartuta, etxeetatik kantu-jira birtualak egiten aritu ziren.

COVID-19ak eragindako osasun krisiaren albo kalte ekonomikoak

Iñaki Erauskin ekonomialari eta Deustuko irakasle lasarteoriatarrak, osasun krisiaren albo kalte ekonomikoak aztertu zituen. Koronabirusari aurre hartzeko garai hartan finkatutako "euste neurriek" sortutako krisi ekonomikoaren inguruko analisia egin zuen.

Osasun krisiari aurre egiteko hartu ziren "euste-neurriek" (bi hilabeteko etxeko konfinamendua, besteak beste) krisi ekonomikoa sortu dutela argi azaldu zuen Erauskinek, eta gaineratu zuen, neurri horiek “berandu” iritsi zirela. Neurriak berandu hartzearen zergatiak ere azaldu zituen. “Gobernuak bi alternatiba jarri zituen mahai gainean; alde batetik osasuna irabazi, jarduera ekonomikoa murriztu eta Barne Produktu Gordina galtzea; eta beste alde batetik, osasuna galdu, jarduera ekonomikoarekin jarraitu eta Barne Produktu Gordina mantentzea. Hasieran bigarren aukerari eutsi bazioten ere, osasun egoera okertu, norabidea aldatu eta osasuna zaintzeari leku gehiago ematen hasi zirela azaldu zuen, besteak beste.

Inaki Erauskin herritarra. I.ERAUSKIN

Txintxarri ez inprimatzeko erabakia

Koronabirusak eragindako osasun krisia tarteko, aldizkariko lantaldeak erabaki zuen ez zuela paperezko zenbakirik argitaratuko alerta egoerak iraun bitartean, aldizkaria egiteko prozesuan parte hartzen duten pertsona guztien osasuna bermatzeko. Zenbaki digitalak egin zituen bitartean, horrela, 1499., 1500. eta 1501. zenbakiak web atarian argitaratuz.

M.CHOURRAUT

Beldurretan arraunean

Maialen Chourraut. Beldurretan Arraunean dokumentala aurkeztu zuten apirilaren 3an. Beldurrak, lesioak, kezkak... Lasarte-Oriako palistak Tokioko Olinpiar Jokoetarako sailkapena lortzeko egin duen bidea aurkezten du ikus-entzunezkoak. Iñigo Asensiok zuzendu zuen lana.

Autismoaren egunean Javier Rebolloren senideekin hizketan

COVID-19ak eragindako itxialdia zaila izan bada herritarrentzat, are zailagoa autismoa duen gaztearentzat

Txintxarri

Autismoaz Kontzientziatzeko Munduko Egunean, apirilaren 2an, Javier Rebollo eta bere sendia elkarrizketatu zituen TXINTXARRI-k; horrela, garapenaren trastornoa duen herritar baten familiaren testigantzak bilduz.

Eguneroko errutina "ezinbestekoa" duen semearengan itxialdiak eragindako egoera nolakoa izan zen kontatu zuten, besteak beste. Ez ziren aste errazak izan Rebollo Pedreira familiarentzat ere, eta bizitzea egokitu zitzaien zenbait egoera "gogaikarriren" berri ere eman zuten. Kontatu zuten nola, besteak beste, etxean sartzeko garrasiak entzun behar izan zituztela, baina ez hori bakarrik, semearekin kalera irtetean bizitako beste egoera "gogaikarrietako" baten berri ere eman zuten.

Javier Rebollo bere ama, aita eta arreba ondoan dituela, itxialdian. TXINTXARRI

TXINTXARRI

Irudimena, aurrera egiteko

Ezohiko egoera hark ezohiko ospakizunak ekarri zituen herrira: oraindik kalera inolako baldintzarik gabe atera ezin zenez, herriko zenbait auzotan bizi diren lasarteoriatarrek erabaki zuten euren etxeetako leiho eta balkoietatik hauspotzea jai giroa: sanpedroak, Joko Olinpikoak, sanferminak, futboleko euskal derbia... Kasu batzuetan, gainera, aldarriarekin lotu zuten festa: ikurrinak eskegi zituzten Aberri Egunean.

TXINTXARRI

Irratia, itxialdian topagune

Konfinamenduko bizipenak, baliabideak, jakintzak, historiak... partekatu eta ondo pasatzeko xedez uhinetara pausoa egin zuten, apirilaren 4an, zenbait herritarrek. Astean bi saio egiten zituzten: asteazkenetan, 20:30ean, eta larunbatetan, 12:00etan. Salbuespen egoeran "elkar komunikatzeko eta sozializatzeko" espazio edo topagune bat eratzea izan da helburua.

Herritarrek herritarrei laguntzeko, Babes Sare zabala

Lasarte-Oriako 50 bat boluntariok osatutako sarea. Larrialdi egoera hartan, herritarren beharrak aztertu eta horiei erantzuna ematen saiatu ziren. Herritarrei sarearen eta egoeraren berri emateko hainbat bide ireki zituzten, hala nola, Telegram kanala edo irratia.

Beste hainbat herrietan bezala, orduko salbuespen egoerari modu kolektibo eta komunitario batean erantzuteko asmoz Lasarte-Oriako Babes Sarea sortu zen. Garai hartan eman zituzten pausoak eta herriarengana zuzentzeko martxan jarritako zenbait bideren berri eman zuten.

Horrela herritarren beharrak identifikatu zituzten: oinarrizko produktuen erosketa; lan kargarengatik, zaintza lanak egiteko zailtasunak izatea; nekazarien jarduna indartzea; bakardade sentsazioaren aurrean zaintza telefoniko bat ematea eta egoera nahaskor honen aurrean kritikotasuna sustatzea.

Haurrek kalera ateratzeko aukera apiril amaieran

Apirilaren 26an iritsi zen familia, aditu eta gizarteko kide askok behin eta berriro eskatu zutena: haurrek kalera irteteko baimena izatea. Espainiako Gobernuak hainbat baldintza ezarri zituen, dena den, hasierako erabakiak eragindako harrabotsa tarteko atzera egin eta gero –baimendu zuen soilik supermerkatu, banketxe eta medikuarenera joatea, heldu baten laguntzarekin–: etxetik kilometro batera arteko eremura ateratzeko baimena zuten haurrek, ordubetez, goizeko bederatzietatik gaueko bederatzietara. Guraso edo anai-arreba helduago batekin irten ahal ziren; gehienez, hiru haur batera.

Oinherri Herri Hezitzailea egitasmoak haurtzaroa balioan jarriz, igande horretarako (apirilaren 26a), 12:00etan, leiho eta balkoietara atera eta txalo egitea proposatu zuen, bide batez,ospatuz haurrek kalera irteteko aukera izatea.

Iraia Iparragirre eta Axier Arteaga kirolariekin solasean

Egunero futbol zelaira joatetik 24 orduz etxean egotera. Egunerokoa guztiz moldatu behar izan zuen Iraia Iparragirre Realeko jokalari lasarteoriatarrak. Aitortu zuen itxialdia ongi etorri zitzaiola bere eguneroko erritmoa mantsotzeko, baina bestetik moldaketa asko egin behar izan zituela ere aitortu zuen.

Prestatzaile fisikoak zuzenduta, astelehen, asteazken eta ostiraletan, talde guztiarekin batera ariketa fisikoa eginez aritu zen, etxean zituzten baliabideekin.

Axier Arteaga pilotariak ere sumatu zuen frontoian aritzeko beharra. Etxean entrenatu, gradu amaierako lana aurreratu eta hizkuntza berriak ikasiz etekina atera zion itxialdiari, baina garai horretan konturatu zen, pilotak zer esanahi duen berarentzat, pasio dela pilotan aritzea lasarteoriatarrarentzat.



TXINTXARRI

Itxialdian emozioak kudeatzeko gako eta aholkuak herritarrei

Amaia Aldaz eta Sheila Dominguez psikologoek etxealdiak piz ditzakeen ohiko emozioak bildu zituzten, eta haiei aurre egiteko zenbat aholku eman, ataka horretatik onik ateratzeko erabilgarriak izateaz gain, bizitzarako baliagarriak ere badirelakoan.

Konfinamenduari nola aurre egin pentsatzean, bi profesionalek jendea ezkortasun kiribil batean sartzen ari zela nabaritu zuten, eta gaineratu, ikuspuntuaren arabera aldatzen direla pentsamenduak. Azpimarratu zuten itxialdian areagotu egiten direla egoera ezatseginak eta ohi baino errazago dela kexatzea. Profesionalek aholkua argi bat ere eman zuten horri aurre hartzeko: kexari tartea egitea, adieraztea, baina ez denboran luzatu, hari kateatuta gelditu.

Antsietateaz, ikaraz, haurrekin egin ahal izateko ideiez, errutinak zehaztearen onurez eta beste hainbat informazio eman zizkieten profesionalek lasarteoriatarrei.

Udako Txokoak aurrera

2020. urteko udan herriko txiki zein gazteei aisialdi hezitzaile bat eskaintzeko lanetan harrapatu zuen Ttakun KE alarma egoerak. Zenbat iraungo zuen jakin gabe izen ematea eustearekin batera, Udako Txokoekin aurrera egiteko erabakiari ere hartu zuen kultur elkarteak. Hala jakinarazi zuen Txintxarri-k maiatzaren 29ko aldizkarian argitaratutako ohar batean.

Etxetik egin dute Udaltop

Eremu sozioekonomikoan jarrita zuen fokua Udaltop Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketak, izan ere, alor horretan euskararen erabilera pizteko gakoak ematea baitzen hamabigarren edizioaren helburu nagusia. COVID-19ak eragindako osasun larrialdiak, ordea, jardunaldia moldatzera behartu zuen Antolamendu Batzordea. Horrela, goiz bakarrera mugatu eta online egin zuten *Udaltop etxetik*: ireki leiho bat lan munduari jardunaldia.

Asko izan dira aurtengo edizioko hizlariak. Jon Sarasuak *Apustu baterako arrazoibideak eta ohar batzuk* hitzaldia eskaini zuen, eta, jarraian, Agirre Lehendakaria

TXINTXARRI

Centerreko Leire Canciok bere hausnarketa plazaratu zuen.

Gero, Pilar Kalzadak gidatutako *Euskara eremu sozioekonomikoan: egingo dugu apustu? Zer eta nola egin beharko genuke?* mahai inguruan, EJ-ko Bingen Zupiriak, Fagor kooperatibako Leire Okarantzak eta Topaguneko Kike Amonarrizek hartu dute parte.

TXINTXARRI

Solasaldi birtuala Txintxarri-n

Apirilaren 21ean eta 22an kultur eragileek greba digitala egin zuten. Deialdi horrekin bat egin zuten Lasarte-Oriako kulturgileekin solasaldi birtuala egin zuen Txintxarri-k. Bea Egizabal ipuin kontalariarekin, Joxe Mari Agirretxe *Porrotx* pailazoarekin, Aintzane Usandizaga idazlearekin eta Ane Labaka bertsolari eta sortzailearekin bildu zen aldizkaria.

Xirimiri elkartearen bi kontu enbargatuta

Sortuk ohar bidez jakinarazi zuen, 35/02 sumarioko epaia gauzatzen hasi zela Auzitegi Nazionala, eta herriko taberna eta elkarte batzuen kontuak enbargatzen. Lasarte-Oriako Xirimiri da Herriko tabernen auzia kasuan auzipetutako elkarteetako bat eta apirilean jakinarazi zuen Auzitegi Nazionalak bi kontu enbargatu zizkiola, 2002an bertan zeukan diru kopuru berberarekin. Elkartasun ekintza bat ere antolatu zuten, baina udalak debekatu egin zuen.

Paperezko aldizkariak postontzietan berriro

la bi hilabeteko etenaldiaren ostean, lasarteoriatarren etxeetako postontzietara iritsi zen berriz ere Txintxarri aldizkaria, egoerak eskatzen zituen baldintza eta berme guztiekin. Txintxarri-ko lantaldeak paperezko argitalpena etetea erabaki zuenetik ia bi hilabete pasata, 1502. zenbakia postontzietan jaso zuten herritarrek.

Bi hilabete horietan, ordea, ez ginen geldirik egon, eta jarraitu genuen herriari buruz informatzen, gure webgunean: inoizko trafiko datu onenak lortu genituen.

Haurraren Eguneko irudia. TXINTXARRI

Haurraren Eguna antolatu eta ospatu du Ttakun KEk

Apirilaren 26an Haurraren Egunaz gozatu zuten milaka lasarteoriatarrek. Batez ere, etxeko txikienek, ordenagailu, mugikor eta bestelako pantailatik unean-unean *txintxarri.eus* atarian zintzilikatu genituen edukiak ikusten: txupina Porrotxen eskutik, buruhandien desfilea, diploma banaketa, kantu-jolasak, sukaldaritza errezetak, ipuin kontalaria eta erlaxazio saioa, zunba saioa, disko festa eta agurra. Egun horretan atera ahal izan zuten kalera aurrenekoz umeek, ordubetez; egunaren gainerako orduak azkar batean pasa zitzaizkien. Mozorro festa eta argazki lehiaketa ere antolatu zituen Ttakunek.

Segurtasunez lan egiteko

Usurbilgo Lanbide Eskolak 478 babes-maskara eman zizkion Aterpea merkatarien elkarteari, herriko establezimenduetan banatzeko. COVID-19ak eragindako egoeraren aurrean "modu seguruan" lan egitea ahalbidetu asmoz egin zituzten maskara horiek, Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean. Osasun larrialdian zehar 30.000 baino gehiago egin zituen ikastetxeak.

TXINTXARRI

Arkaitz errekan arrainak hilda

Zubietako Arkaitz errekan arrainak hilik agertu zirela salatu zuen Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak. Ura Agentzia ubidera bertaratu, eta laginak hartu zituen gertatutakoa ikertzeko, eta horren aurrean, ohar bat zabaldu zuen GHK-k, ukatuz erraustegiak Arkaitz errekan isuriak egin zituenik. GuraSOSek, ordea, gezurtatu egin zituen adierazpenok.

GURASOS

COVID bulegoa herritarrentzako

Lasarte-Oriako Udalak bulego berezi bat sortu zuen, koronabirusak eragindako egoeraren ondorioz "arazo ekonomiko handiak" dituzten familiei laguntzeko. 400.000 euroko diru-laguntza lerro bat iragarri zuen ABEE batean dauden pertsonei, langabezian geratu direnei eta alerta egoerak iraun bitartean "diru-sarrerak nabarmen" murriztu zaizkien autonomoei bideratuta.

TXINTXARRI

TXINTXARRI

Herria pixkanaka berpizten

Konfinamendua arintzen joan ahala, herriko merkatari, ostalari eta enpresak eguneroko martxara bueltatzeko saiakerari ekin zioten. Herriko kaleek beste itxura bat hartzen hasi ziren, itxialdia arintzearekin batera berpizten hasi zen herria. Kirol instalazio batzuk ere martxan jarri zituen udalak: faseka-faseka ireki zituen.

TXINTXARRI

Hamabostaldi ezohikoa

XVIII. Hamabostaldia abiatu zuen Kukuka antzerki eta dantza eskolak. Herriko auzoetan barrena egindako desfilearekin eman zioten hasiera, sare sozial eta web orrialdeen bidez ikusi ahal izan ziren gero aurtengo dantza eta antzerki lanak. Koronabirusak eragindako egoeraren ondorioz klaseak eta asteroko saioak bertan behera geratzea "oso gogorra" egin zaio taldeari.

TXINTXARRI

Intza kirol elkartea, sanpedroetako txapelketarik gabe

Intza kirol elkarteko kideek herriko festetako ohiko txapelketa bertan behera uzteko erabaki hartu zuen. Zalantzaz betetako hilabeteen ostean, federazioak herriarteko txapelketa bakarrik jokatuko dela jakitera ematearekin batera, hurrengo denboraldiaren prestaketekin hasi ziren herriko pilotariak.

TXINTXARRI

TXINTXARRI

Kirolarien denboraldiak etenda

LOKEko gimnastek denboraldi paregabea espero zuten, baina larrialdi egoerak asmo horiek zapuztu zizkien. 2020. urteko Euskal Jokoak bertan behera geratu zirela jakin eta berehala denboraldia amaitutzat eman eta hurrengoarekin hasi ziren lanean. Beltzak RTk ere pena handiz amaitu behar izan zuen denboraldia, eta Aitor Uranga oroimezkoa ere bertan behera utzi zuten.

Oriarte BHIko ikasleek, aurrez aurreko klasetara buelta

Beharrezko neurriak hartuta ekainaren 1ean ireki zituen ateak, berriz ere, Oriarte BHIk, eskola presentzialei ekiteko

Segurtasun eta osasun neurriak jarraituz itzuli ziren ikasleak gelatara. TXINTXARRI

Txintxarri

Bi hilabete eta erdiz klaseak telematikoki egin ostean, 2. Batxilergoko ikasleek euren etxeak utzi eta instituturako bidea egin zuten. Ikasleak modu mailakatuan sartu ziren ikastetxera. Batzuk goizeko 09:00etan, besteak 09:15ean, ikasgela fisikoetara itzuli ziren. Ez zen ohiko itzulera izan: maskara, gela, espazio komunen erabilera, seinaleak, ibilbideak...

Gaiekin hasi baino lehen, jarraitu beharreko protokoloak azaldu zizkieten ikasleei. Ondoren lanean hasi ziren guztiak ikasturteari amaiera eman edo selektibitatea prestatzeko. 1. Batxilergoko ikasleen txanda izan eta asteazkenean, berriz, 4. DBHkoena.

Segurtasun neurri guztiak zorrotz jarraituz itzuli ziren ikasgelatara.

TXINTXARRI

Zaldi lasterketak berriro martxan

Ateak itxita eta zaleen animorik gabe ekin zion udako denboraldiari Donostiako Hipodromoak. COVID-19ak eragindako krisiak medio hartu zituzten neurri horiek, eta hala jokatu zen ekainaren 7ko jardunaldia. Lasterketako parte-hartzaileek euren onena eman zuten eta Vaclav Janacek jockeyak gidatutako *Salar Island* izeneko zaldia izan zen bizkorrena.

TXINTXARRI

Sanpedroetan ospakizun sinbolikoak bakarrik

Aurreikusi zitekeen aurtengo uda ezohikoa izango zela Lasarte-Orian ere. Koronabirusak eragindako egoeraren bilakaerak hala behartuta, uda garaiko herriko festa gehienetako festak bertan behera utzi zituzten udalek, eta horien arten, Lasarte-Oriakoak Sanpedroak ere bai. Txus Alonso Kirol eta Jai arloen arduraduna elkarrizketatu zuen Txintxarri-k 1507. zenbakian, eta han iragarri zuen erabaki gogorra izan bazen ere, bertan behera geratzen zirela aurtengo herriko jaiak.

Sorgin Jaiekin ere hitz egiteko aukera izan zuen aldizkariak, eta horiek, festa sinboliko batzuk iragarri zituzten, Horrela, Pijama Eguneko txupinazoarekin, manifestazioa, danborrada, Mus txapelketa eta hausnarketa eta bideo proiekzioa eginez kolore pixka bat eman zioten herriari ekainean.

TXINTXARRI

Tabernarien protestak kalera

"Irtenbideak" eskatzeko Lasarte-Oriako Ostalaritza elkartea osatzen duten tabernak kalera irten ziren. Eskatu zuten ostalaritza negozioek pertsiana behin betiko jaitsi behar ez izan eta lanean hasteko erraztasunak ematea erakundeek. Lortu zuten terrazak jartzeko espazioak handitzea eta udal-tasak 2021. urtea hasi arte ez ordaintzea. Gerora ere, beste hainbat mobilizazio ere egin dituzte urtea amaitu aurretik.

TXINTXARRI

Kiroldegiko zenbait gune irekita

Ia hiru hilabete eta gero, herritarrak ariketa fisikoa egitera itzultzeko aukera izan zuten Maialen Chourraut kiroldegiko zenbait gunetara: muskulazio eta ariketa kardiobaskular gela eta padel pistara, hain justu. Erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko, aldaketak egin zituzten instalazioetan.

Mendira itzulera

Mendira irteerak eta askatasun sentsazioak alde batera utzi behar izan zituzten Lasarte-Oria Trail taldeko kideek ere itxialdian. Taldeko kirolariak ahal bezala moldatu ziren etxeetan entrenemendu saioak eginez, baina pozarren hasi ziren, berriz ere, mendietara irteerak egiten aukera eman bezain pronto. Irailaren 27an egin zuten II. Mendi Festa ere orduan hasi ziren antolatzen.

TXINTXARRI

Gaixotasunari aurre hartzeko lanetan, ZIUn

COVID-19aren pandemia hasi zenetik, osasun langileak horren aurka gogor ari dira lanean. Lasarteoriatar ugari dago zeregin horretan, Amalur Guridi horietako bat. Kontatu zuen nola 2019 amaieran hasi ziren Txinatik zetozen gaixotasunaren inguruko albisteak jasotzen

Nerea Eizagirre

Donostiako Unibertsitate Ospitaleko ZIU Zainketa Intentsiboen Unitatean egiten du lan Amalur Guridi Mujikak (Lasarte-Oria, 1989), mediku gisa. Larritasun handiena duten gaixoak artatzen ditu ZIUn eguneroko arruntean, eta COVID-19 larrialdian zehar, ospitalizazioko planta arrunt batean egoteko moduan ez zeuden pazienteak jaso dituzte unitatean.

Kontatu zuen nola 2019. urte amaieran hasi ziren Txinatik lehen albisteak jasotzen aldizkari medikuen bitartez. Horrela, aurreikusi zuten Euskal Herrira ere iritsiko zirela kasuak, baina

A. GURIDI

ez zutena imajinatu izan zen kaltea zenbaterainokoa izango zen. Horrela, urte hasierarako babes neurriko jantziak prestatzen hasi ziren, eta martxo hasieran jaso zituzten lehen gaixoak. Osasun larri betean bizitakoak kontatu zizkion Txintxarri aldizkariari.

Bere bidez jakin genuen zeintzuk diren COVID-19aren sintomak, nola jokatu behar den sintoma horiek izanez gero, zein protokolo jarraitzen zuten orduan ospitalean, zeintzuk neurri jarraitzen zituzten lanean zeuden bitartean eta ekainean ZIUn zein egoera bizitzen ari ziren, besteak beste.

Herritarrei distantzia soziala mantentzea, eskuan ongi garbitzea eta maskara erabiltzeko gomendioak ere egin zizkien.

TXINTXARRI

Euskararen Maratoia 2021ean

Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak, Euskararen X. Maratoiko zortzikotea osatuko zuten kideekin batera, Euskararen X. Maratoia urtebetez atzeratzea erabaki zuten. Antolaketa lanak aurreratuta bazituzten ere, Covid-19ak sortutako egoera dela eta, eta ekitaldia behar den moduan egiteko baldintzak bermatu ezinik, bermatu, urtebetez atzeratzea erabaki zuten.

TXINTXARRI

Kultura, arnasa hartu ezinean

Urte sasoi oparoa izan ohi da kulturaz bizi diren sortzaile eta langile guztientzako udara. Herriko festak nonahi, baina, aurtengoak ezer gutxi izan du hortik. Festa gehienak bertan behera geratuta, lanik gabe, ogibideari eutsi ezinik aurkitu dira asko, horien artean Lasarte-Oriako kultur sortzaile eta sektoreko langileak. Horien egoeraren berri eman zuen aldizkariak ekainean argitaratutako zenbaki berezian, herriko kultur sortzaile eta langileen testigantzak bilduz.

Errepideetara itzultzeko nahia

Errepide denboraldia ez zen amaitu Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako kideentzat larrialdi egoera ezarri zutenean. Hasiberria zen eta, ekaina erdialdean jakin zuten uztaila amaieran lehen lasterketak antolatzen hasiko zirela berriro. Data horretarako prest egoteko, garaian garaiko entrenamenduetara moldatu behar izan ziren txirrindulariak.

TXINTXARRI

Garcia
AUTOBUSAK
Nafarroa etorbidea 32-2.A
(Leku-Eder etxea) - ZARAUTZ
Tel: 609 479 478
info@garciabus.com - www.garciabus.com
Garcia
Urte berri zoriontsua izan dezazuela!
• Edozein eratako bidaiak egiteko zerbitzu aproposak
• Bestelako zerbitzuak

202

URTARRILA

A1	A2	A3	O1	O2	L	I
				01	02	03
04	05	06	07		09	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21		23	24
25	26	27	28		30	31

OTSAILA

A1	A2	A3	O1	O2	L	I
01	02	03	04		06	07
08	09	10	11		13	14
15	16	17	18		20	21
22	23	24	25		27	28

MARTXOA

A1	A2	A3	O1	O2	L	I
01	02	03	04		06	07
08	09	10	11		13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25		27	28
29	30	31				

UZTAILA

A1	A2	A3	O1	O2	L	I
			01		03	04
05	06	07	08	09	10	11
12	13	14	15		17	18
19	20	21	22		24	25
26	27	28	29		31	

ABUZTUA

A1	A2	A3	O1	O2	L	I
						01
02	03	04	05	06	07	08
09	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

IRAILA

A1	A2	A3	O1	O2	L	I
		01	02	03	04	05
06	07	08	09		11	12
13	14	15	16		18	19
20	21	22	23		25	26
27	28	29	30			

2021

APIRILA

A1	A2	A3	O1	O2	L	I
			01	02	03	04
05	06	07	08	09	10	11
12	13	14	15		17	18
19	20	21	22		24	25
26	27	28	29			

MAIATZA

A1	A2	A3	O1	O2	L	I
					01	02
03	04	05	06		08	09
10	11	12	13		15	16
17	18	19	20		22	23
24	25	26	27		29	30
31						

EKAINA

A1	A2	A3	O1	O2	L	I
	01	02	03		05	06
07	08	09	10		12	13
14	15	16	17		19	20
21	22	23	24		26	27
28	29	30				

URRIA

A1	A2	A3	O1	O2	L	I
					02	03
04	05	06	07		09	10
11	12	13	14		16	17
18	19	20	21		23	24
25	26	27	28		30	31

AZAROA

A1	A2	A3	O1	O2	L	I
01	02	03	04		06	07
08	09	10	11		13	14
15	16	17	18		20	21
22	23	24	25		27	28
29	30					

ABENDUA

A1	A2	A3	O1	O2	L	I
		01	02		04	05
06	07	08	09	10	11	12
13	14	15	16		18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29		31		

Atsobakarreko egoiliarrekin hitz egin zuten pirata txikiek. Gaztenek ere ekintza ugari egin zituzten, horien artean, pankarta margotzea. TXINTXARRI

Udako Txokoek, koronabirusari aurre

COVID-19aren aurkako neurri guztiak jarraituz, Ttakun Kultur elkarteak Udako Txokoak antolatu zituen. 200 bat haur izan ziren jardueran. Hala ere, Eusko Jaurlaritzako neurriak jarraituz astebetez ez zen zerbitzurik eskaini

Txintxarri

Paula Gonzalez herritarraren baratzea ezagutzera joan zirenekoa, Atsobakar adinekoen egoitzako egoiliarrekin batera egin zuten kale ekintza, mural margoketa, etxeko materialak berrerabiliz sortutako malabareetarako tresnak, kamisetak serigrafiatu... Horiez gain, irteerak, ur-jolasak eta beste hamaika ekintza ere egin zituzten etxeko txikiek uztailean zehar.

Aspertzeko astirik ez zuten izan Ttakun Kultur elkarteak antolatutako Udako Txokoetan parte hartu zuten 200 bat haur eta gaztetxoek.

Segurtasun neurri guztiak betez egin zituzten jarduera guztiak. Koronabirusak, ordea, eragin zuen jardueraren jardunean eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak uztailaren 18an ezagutarazitako gomendioei jarraituz, Ttakun Kultur Elkarteak zazpi egunez zuen zerbitzurik eman.

Gauzak honela uztailaren 27an, jarraipena eman zitzaion jarduerari eta haur eta gaztetxoek ederki amaitu ahal izan zuten hilabetea, hala nola, ur-jolasak eta hamaiketako goxoak egingo zituzten azken egunean.

Begiraleen aldarriak, eta akordioa

Ttakun KEren Udako Txokoetan begirale lanetan aritu zen taldeak idatzi bat prestatu zuen eta elkartearen zuzendaritza taldeari bidali zion, adieraziz, besteak beste, uztailaren 28an oraindik kontraturik sinatu ez izana, COVID-19ak "are gehiago okertutako" lan baldintzak "prekarioak" zirela, ziurgabetasuna, eta "komunikazio eta informazio falta", besteak beste. Okendon agerraldi publikoa ere egin zuten, protesta afixak eskuetan zituztela.

Horren aurrean, bilera bat baino gehiago egin zuten Ttakuneko zuzendaritzak eta begirale taldeak, uztailaren 30ean adostasun batera iritsi ziren arte. Egoera hori "inorentzat erosoa" izan ez zela adierazita, hobetzeko konpromisoa hartu zuten. Ttakun KEk adierazi zuen konprometitzen zela izandako "arazo administratibo eta komunikatiboak" konpontzera, eta iritsi zela akordio ekonomiko batera begiraleekin, azken horiek oharrean aipatu arren "behar bezala baloratuak" sentitu ez zirela.

Sententzia errespetatuko da, baina ez dago bat arrazoiekin

Auzitegi Gorenak haurrek jarduerak euskaraz egiteko udal diru-laguntzen baldintza baliogabetu zuen

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak adierazpen instituzional bat plazaratu zuen. Udalak 2017. urtean onartutako ordenantza batean zehaztu zuen 16 urtetik beherako jarduerek euskaraz izan behar zutela, antolatzaileek diru laguntzak jasotzeko aukera izan zezaten. Gorenak baldintza hau baliogatu zuen.

Lasarte-Oriako Udalak erabakia errespetatuko zuela jakinarazi zuen. Hala ere, sententziak udalek hizkuntza politiken alorrean dituzten eskuduntzak aintzakotzat hartzen ez zituela adierazi zuen, baita hizkuntza berdintasunaren oinarrizko printzipioaren aurka egiten zuela ere.

Udalak bere sorreratik ezarritako helburua eta hizkuntza-politika mantentzeko jarrera irmoa agertu zuen. Horregatik, Foru Aldundi zein Jaurlaritzarekin ordezko formularik zuzenena zein izango den zehazteko lanean hasi zen.

Amaitzeko, udalaren helburua inor ez diskriminatzea dela nabarmendu zuten. "Horretarako bideak dira belaunaldi berrietako kide guztiek bi hizkuntzak irakaskuntza sistemaren bidez bereganatzea eta ikastetxetik kanpo ahalik eta euskarazko jarduera gehien izatea".

TXINTXARRI

Beheranzko joerarekin arduratuta

Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak elkarretaratzea egin zuen Okendo plazan, Lasarte-Oriaren hiri-hondakin bilketaren "datu eskasak" salatu eta Zubietako erraustegiaren egitasmoa deitoratzeko. Dozenaka herritarrek bat egin zuten deialdiarekin. *Birziklatu. No a los malos humos* lelodun afixaren atzean jarri, eta protesta egin zuten.

Ezohiko hauteskundeak

Apirilean egitekoak ziren Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak uztailaren 12an gauzatu ziren azkenean. Lurraldeak EAJk irabazi bazuen ere, Lasarte-Orian EH Bildu izan zen bozkatuena (%28,17). COVID-19aren krisiak eraginda, herriko parte-hartzea hamar puntu jaitsi zen. Bozka puntuetan hainbat neurri jarraitu behar izan zituzten bozka eman zuten herritarrek.

TXINTXARRI

Kontratua berritzea

Iraia Iparragirre Argandoñak (Lasarte-Oria, 1995) bi urtez berritu zuen kontratua Real Sociedad taldearekin. Defentsa pozarren zegoen kontratu berritzearekin eta ziurgabetasunez eta berrikuntzaz beteta zetorrela nabarmendu zuen berarekin izandako elkarrizketan. 2020-2021 denboraldia seigarrena du herritarrak.

REAL SOCIEDAD

Haurdunaldi eta erditzea, pandemia garaian

Lasarte-Oriako familiek inoiz imajinatu gabeko haurdunaldi eta erditzea bizi zuten itxialdi garaian; osasun arreta ere aldatu zen

Txintxarri

Zuzenean zerbaiti eragin badio pandemiak, osasungintzari izan da, eta, horrekin, pertsonei. Besteak beste, haurdunaldien eta erditzeen orain arteko bideek beste noranzko bat hartu dute, eta horrek, mota guztietako ondorioak eragin ditu pazienteengan. Lasarte-Oriako anbulatorioko emaginekin eta guraso izan diren Perez-Noreña eta guraso izateko puntuan ziren Agirre-Iribar familiekin hitz egin zuen Txintxarri-k euren bizipenak jasotzeko.

Emaginak

COVID-19ak eragindako pandemiak erabat aldatu zuen Lasarte-Oriako emaginen lan egiteko modua. Aurrez aurreko harreta eta haurdunaldi aurreko prestaketa saioak eten

Perez-Noreña familia. PEREZ-NOREÑA

ziren eta emaginek teknologia berriei esker jarraitu ahal izan zuten pazienteekin harremanetan.

Perez-Noreña familia

Haurdunaldiaren azken hilabete eta erdia konfinatuta pasatzea beste aukerarik ez zuen izan Perez-Noreña familiak. Alabaren erditze garaiak konfinamendu bete-betean harrapatu zuen. Prestaketa guztiak eginda izan arren, osasun larrialdiak "beldur eta ziurgabetasuna" eragin zituen eurengan.

Agirre-Iribar familia

Ez zuten inola ere imajinatu Agirre-Iribar familiak haurdunaldiaren bigarren hiruhilekoa etxean itxita bizitzea egokituko zitzaienik. Haurdunaldiaren hamabigarren astean zeuden konfinamendu agindua eman zutenean; inguruko askok ere haurdun zeudenik ez zekitenean sartu ziren etxean. Gehienei sare sozialen bidez komunikatu zieten. Emaginekin telefonoz egiten zituzten kontsultak eta emandako gomendioak jarraitzeko nahikoa lan izan zuten.

Artetxe, txapela eta trofeoarekin. KRONIKA

Artetxek Zikuñagako Papelera torneoan txapela jantzi zuen

Intzako pilotariak martxan hasi ziren. Hernaniko Zikuñaga txapelketako bigarren edizioa eta Villabonako Santio txapelketan lehiatu ziren. Lehen lehiaketa horretako finalera iritsi zen Jon Pello Artetxe herritarra Intxurreko Irazustabarrenarekin batera eta txapela eskuratu zuen Eskudero andoaindarra eta Labaka hernaniarra 5-18 garaituz.

Beterri-Buruntzako estatutuak, behin-behinean onartuak

Lasarte-Oria, Andoain, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbilgo udal-korporazioetako ordezkariak Hernanin bildu ziren eskualde mailako Batzar Nagusian Beterri-Buruntza mankomunitateko estatutuen lehenbiziko onarpenari bide emateko.

Estatutu horien bitartez, 2017. urtetik udalen arteko lankidetza-hitzarmen bidez funtzionatzen duen egiturari "sendotasun juridiko eta administratiboa" eskaini zitzaion, tokiko garapenaren eta sustapen ekonomiko eta enpleguaren eremuan lanean jarraitzeko.

Udaletako ordezkariak. BETERRI-BURUNTZA

Santa Ana, egokituta

Ezohiko egoerari egokitu ziren Santa Ana eguneko ospakizunak. Goizean, meza eta dantza egin ziren, Santa Ana karkaban. Gauean, Santa Ana eguneko parodiak ohiko izpirituari heldu zion. Kultur etxetik zeruarekin (*in the Skype*) eta herriko beste txoko batzuekin konexioak eginez, urteari errepasoa egin zioten kritikaz zipriztindutako umorez. Sutan kiskali zituzten Tapia eta Ezleturia akusatuak.

TXINTXARRI

Añorga KKEk ezin izan zuen denboraldia biribildu

Javi Solchaga herritarrak zuzentzen duen Añorga KKEk hatz-mamiekin ukitu zuen Reto Iberdrola ligako igoera, baina ez zen posible izan. UD Aldaia CF talde valentziarrak poltsikoratu zuen txartela, talde gipuzkoarrari 0-1 irabazita. Ainara del Olmo eta Izaskun San Aniceto herritarrek partida osoa jokatu zuten.

San Aniceto partida batean. CONCHI SANCHEZ FRAIL

Ikasturte bereziari hasiera eman zitzaion

Lasarte-Oriako ikastetxeetan hasiera mailakatua izan zen. Segurtasun neurri guztiak betez itzuli ziren herriko haur eta gazteak geletara. Irailaren 15ean, sindikatuek deitutako grebak orokorrean jarraipen handia izan zuen Lasarte-Orian

Txintxarri

Sei hilabete ikastetxeetatik kanpo egin ondoren, Lasarte-Oriako ikastetxeetako ikasleak geletara itzuli ziren. Segurtasun neurriak txukun-txukun mantenduz eta sarrera txandak errespetatuz hasiera mailakatua izan zuten herriko haur eta gazteek. Aurretik lan ederra eginda zuten ikastetxeek, kontingentzia planak diseinatzen.

Oriarte BHIko bi irakasle, lehen planoan, metroa eskuetan. ORIARTE BHI

Greba

Hasi eta egun gutxira, hilaren 15ean, ELA, LAB, CCOO, UGT eta Steilas sindikatuek deitutako greba egin zen. *Aurrez aurreko itzulera segurua eta adostua* lelopean, sindikatuek salatu nahi zuten Eusko Jaurlaritzak hartutako neurriak "eskasak" zirela.

Lasarte-Oriako ikastetxeetan orokorrean jarraipen handia izan zuen grebak. Esate baterako, Oriarte BHI Larrekoetxe eraikinean DBH 3-4 eta Batxilergoko ikasleek egun horretan zuten aurkezpena, baina grebaren jarraipena handia izan zenez, ekitaldia atzeratzea erabaki zuten.

Sindikatuen salaketa horrekin bat eginez, Oriarte BHIko irakasleek salaketa grafikoa egin zuten sare sozialetan. Metroa eskuetan, ikasleen artean metro eta erdiko tartea mantentzea ezinezkoa dela erakutsi nahi izan zuten.

Ostadar SKTko atletak bikain Euskadi zein Espainiako txapelketan

Ostadar SKTko atletak. OSTADAR ATLETISMO

Ostadar SKTko atletek aire zabaleko txapelketen denboraldiari hasiera eman zioten abuztu amaieran, Euskadiko txapelketan. Emaitza onak lortu zituzten. Urrezko dominak lortu zituzten Maider Rekondok pisu-jaurtiketa proban eta Naroa Furundarenak jauzi hirukoitzean. Rekondok berak zilarrezkoa ere eskuratu zuen disko-jaurtiketako proban.

Irailean, berriz, Naroa Furundarenak Espainiako txapelketarako sailkapena lortu zuen eta jauzilari hoberenen artean lehiatu zen Alcobendasen (Madril). Zortziko finalerako sailkatu zen Lasarte-Oriako gaztea eta zazpigarren amaitu zuen proba, 12,16 metro eginda. Urteko markarik onena izan ez arren, irakurketa positiboa egin zuten Ostadar SKT atletismoko arduradunek.

Arteaga II.ak, Baikon jarraitu

Enpresak pilotari lasarteoriatarraren aldeko apustua berretsi eta abuztuaren erdialdean, Axier Arteagak kontratua berritu zuen. 2022. urtera arte ariko da Baiko Pilota enpresan. Irailean, berrogeialdia igaro behar izan zuen eta bikotekako partidak utzi behar izan zituen egun batzuez. Pilotarien grebarekin bat egin zuen herritarrak.

BAIKO ENPRESA

Saio irekiaren irudia. TXINTXARRI

Etorkizuneko Lasarte-Oriaren herri-eredua zehazten hasi zen

HAPO Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren idazketa prozesua martxan jarri zen. 15 urteetarako udal-plangintza orokorra nola izango den, zein herri-ereduren alde egingo den eta nola garatuko den zehaztuko du. Aurrerapen-dokumentua aurkeztu eta saio irekika hurbildu diren lasarteoriatarren ekarpenak jaso zituzten.

'Aske', Hilotz metal taldearen diska berria argitara

Irailaren 15ean kaleratu zuen Hilotz metal taldeak bere bigarren iraupen luzeko lana, *Aske*, "enpatia ariketa bat" taldekideen esanetan, aske izan nahi duten protagonista desberdinen larruan jarri eta istorio bana kontatzeko ariketa, 11 abestitan gorpuztua. Taldeko abeslari eta baxu-jotzaile den Mikel Yarza Artola lasarteoriatarrarekin solastu ginen proiektuari buruz.

Hilotz taldea. ARITZ LARREA.

Errepide ondoan bizitzen. M. BARDAJI

Moriako migratzaile era errefuxiatuen egoerak, okerrera

Urtebete pasa zen Miren Bardajik (Lasarte-Oria, 1992) Moriako kanpamentura iritsi zenetik. Koronabirusak Greziako uhartean harrapatuta dauden migratzaile eta errefuxiatuen egoera okertu duela azaldu zigun: hala nola, suteei buruz hitz egin zuen. Elkartasun ekintza modura, Lasarte-Oriako hainbat ostalarik janari bilketa antolatu zuten eta 1.200 kilo janari pasatxo bildu zituzten kanpamentuetarako.

ISAAC FARRE RICO

Agur, udako denboraldiari

Donostiako Hipodromoak eta zaldien zaletuek 104.denboraldi bereziari agur esan zion. Azken jardunaldian, Donostia Sari Nagusian ez zen ezustekorik izan eta aurtengo Urrezko kopako irabazle Grosjean hockeyaren eskutik, Iskanderhon zaldiak erraz eraman zuen garaipena.

Belartieta, Kontxako uretan

Oriok irabazi zuen XIII. Emakumeen Kontxako Bandera. Nabarmen nagusitu zitzaien ohorezko txandako beste hiru traineruei, tartean, Aiora Belartieta herritarra kide duen Donostia Arraun Lagunakeko eskifaiari. Ohorezko txandan lehiatu zen Lugañene, 4. kalean, eta lehen igandean lortutako hirugarren postuan errepikatu zuen.

A. ARRIZABALAGA

Erlojupekoan eta pistan bikain

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako juniorrek hitzordu garrantzitsuak izan zituzten: errepideko erlojupeko Gipuzkoako txapelketa; eta errepide, zein pistako Espainiako txapelketak. Asier Pozo herritarra izan zen azkarrena Gipuzkoako txapelketan. Pozo bera eta Haimar Etxeberria taldekidea Espainiako txapelketetan lehiatu ziren, Tafallan (Nafarroa) eta Llucmajorren (Balear Uharteak). Pistako txapelketan bi zilarrezko domina eskuratu zituzten gazteek taldekako probetan.

ESPAINIAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

TXINTXARRI

Sendatzeko esker hitzak

Asun Morenok (Lasarte-Oria, 1968) hasieran asmo zehatzik gabe jositako lerro artetik *Merci Maman* (Eskerrak ama) liburua atondu du. Depresioak jotako amarekin izandako bizipenak dira oinarri. Bizipenetan murgilduta egin duen prozesu eraldatzailean bidaide izan du Andrea Van Eyck alaba (Lasarte-Oria, 1995). Alabak berak ilustratu du liburua.

Lasarte-Oriako ariguneak eta 'Nerabeak Euskaraldian' liburua

Euskaraldiko atariko bezala, Lasarte-Oriako entitate erreferenteak eta 2018 urtean gazteekin egindako ikerketa aurkeztu ziren

Txintxarri

Aurtengo Euskaraldiko berrikuntza nagusia zen herritarrek ez ezik, mota guztietako entitateek ere parte hartuko zutela hizkuntza ohiturak astintzeko ariketa sozial horretan, arigune delakoetan elkartuz.

Lasarte-Orian, 51 entitate aurkeztu zituzten Udalak eta Ttakun Kultur elkarteak. "Entitate erreferente" gisa hartu zituzten horiek denak. Bazeramatzaten hilabete batzuk lanketa egiten, eta barne zein kanpoko ariguneak sortu zituzten.

'Nerabeak Euskaraldian' liburua

2016. urteko *40 egun euskaraz* ekimenaren esperientziaren ostean, Lasarte-Oriak zenbait berrikuntza gehitu zizkion 2018. urteko Euskaraldiari. Horien artean, nerabeei zuzendutako ikerketa-ekintza bat abiatu zuten Ttakun Kultur Elkarteak, Lasarte-Oriako Udalak, Oriarte Institutuak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Ebete zerbitzuak. Ikerketa-ekintza hori papera eraman eta *Nerabeak Euskaraldian* liburuan gorpuztu zen.

Saretzea helburu

Lasarte-Oriako neska* gazteak talde feministak antolatutako bilkura egin zen. Egun osoko egitarauak indarrak batu eta harremanetan sakontzea izan zuen xede. Talde gogoeta egin zuten; pankartak margotu eta kamisetak serigrafiatu zituzten. Bertsoek ere izan zuten bere tartea eta kanpoko isekei erantzun zieten bertsolariek, gor bilakatzea eta barrena piztea aipatu zituzten. Azkenik, herriko erdiguneko kaleetan barrena manifestazioa egin zuten.

TXINTXARRI

Euskal Herriko kopa, Zubietan

Real Sociedad taldeak eta Iraia Iparragirrek Euskal Herriko kopa Zubietan geratzea lortu zuten. X. edizioko finalean, Reala eta Athetic Club izan ziren aurrez aurre. Talde txuri-urdina nagusi izan zen. Baliogabetutako gol baten ostean, Realak ez zuen zorterik izan atearen aurrean. Penaltietan erabaki behar izan zen garailea.

REAL SOCIEDAD

Ezerk ez zuen festa zapuztu

Natura, kirola, mendiko botak, makilak, lokatza...eta maskara. Berezia izan zen Lasarte-Oria Trail elkarteak antolatutako Mendi Festaren II. edizioa. Desberdina antolaketa eta forman, baina esentzia aldatu gabe: egun eder bat igaro eta Lasarte-Orian eta inguruan dauden mendi eta paisaiez gozatzea. 285 pertsonak izena eman zuten.

TXINTXARRI

COVID-19aren bigarren enbata, gogortzen

Martxo erdialdetik gaur arteko datuak eskuetan, Lasarte-Orian urria izan da koronabirusak inzidentzia gehien izan duen bigarren hilabetea: Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren arabera, 218 kasu atzeman dira, hilabeteko azken egunetan horietako gehientsuenak

Txintxarri

Urrian hasi zen garaiera hartzen koronabirusaren bigarren olatua Lasarte-Orian. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren datuen arabera, 31 egunetan 218 kasu atzeman zituzten, eguneko zazpi pasatxo, batez beste. Hil horrek 29 egun zituenean jo zuen goia kutsatzeen zenbaigailuak, 23 kasurekin. Urriko azken hamabi egunetan detektatu zituzten positibo gehienak, 218 horietatik 120, hain justu.

Urteko hamargarren hilabetea amaitzear zela iragarri zituen gaur-gaurkoz oraindik indarrean dauden neurri ugari: esate baterako, etxeratzeko agindua. 23:00etatik 06:00etara artekoa izan zen hasieran. Horrez gain, udalerri mailako konfinamendu perimetrala ezarri zuten, ikuskizun kulturaletara joan ahal izateko



Etxeratzeko agindua ezarri zen. TXINTXARRI

murrizketa gehiago eta ostalari eta tabernei ere bai, besteak beste, haiei bigarren aldiz euren negozioak ixtera behartu aurretik.

Orduan hasi ginen entzuten inzidentzia tasa zer zen: zenbat kasu zeuzkan azken hamalau egunetan, batez beste, 5.000 herritar edo gehiago udalerri bakoitzak, 100.000 biztanleko. Eremu gorria, laranja, horia eta berdea; 500eko muga; antigenoen test azkarrak eta beste kontzeptu batzuk gehitu genituen glosariora.

Euskararen Maratoia eta Krosa

Tartekian aipatzen diren ekitaldiak urtebete atzeratzeko erabakiak hartuta zeuden urria ailegatu zenerako, baina hilabete horretan nabaritu zuten herritarrek hutsune handiena, Lasarte-Oriako ekintza kuttunenetako bi baitira Euskararen Maratoia eta Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia.

Ikusteke dago 2021. urtean horiek ospatu eta sentitzerik izango dugun edo ez, baina, bitartean, itxaropena behintzat ez da galdu behar.

Lasarte-Oriako ondare historikoa ezagutzen

Herriko guneak eta muralak hobeto ezagutzea izan da Behemendi elkarteak antolatutako bisitaren helburua

Txintxarri

Behemendi Elkarteak antolatutako bisita gidatuan parte hartu zuten zenbait herritarrek. Lasarte-Orian barrena, herriko txokoak, eraikinak horma irudiak eta historia hobe ezagutzeko aukera izan zuten.

Udaletxe berria, apaizetxea, Brigitarren komentua, Mirentxu, Tren Txikia... Herriko hainbat gune historiko bisitatu zituzten, eta ez hori bakarrik: auzo desberdinetako muralak ere ikusi zituzten bisita horretan.

Bisita gidatua. TXINTXARRI

Atzegik 60 urte

Sentsibilizazio kanpaina berezia jarri du martxan Atzegi elkarteak. 60 urte bete ditu 2020an, eta hamarkada guzti horietan bidelagun izandakoei aitortza egin die *Atzegi 60 urte bidelagunak biltzen* egitasmoaren bitartez. 60 astez Atzegiko protagonistak aurkeztuko dituzte www.atzegi.eus/bidelagunak web orrialdean.

KRONIKA

Miren Amuriza Plaza. TXINTXARRI

Irakurle Txokoko lehen gonbidatua, Miren Amuriza Plaza

Gogotsu ekin zion ikasturte berriari Irakurle Txokoak, Miren Amuriza Plaza idazle eta bertsolaria gonbidatuz: bizkaitarrak ondutako *Basa* eleberria izan zuten hizpide saio horretan. Lasarte-Oria "plaza kuttuna" duela onartuta (bertsotan egitera ere etorri izan baita), gustura aritu zen irakurleekin eleberriaren nondik-norakoak partekatzen.

TXINTXARRI

Poza eta koloreak kultur etxean

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek ireki zuten udalak urrian zehar antolatutako kultur agenda, *Bizi Dantza* ikuskizuna oholtzaratuz. Koronabirusagatik hartu beharreko neurriak neurri, gogotik gozatu zuten emanaldiaz txikiek zein gurasoek: batzuk mozorrotuta joan ziren auditoriora.

Fabuletan bezala, animalia bilakatu dira ziren hiru pailazoak: Porrotx oilarra izan zen; Pirritx, astoa; eta, Marimotots, katua. Ez ziren izan emanaldiko animalia bakarrak izan, ordea: asto zurruteroa, plastiko artean arrantzatutako marmoka edo Zubietako behi aldarrikatzailea ere agertokian izan ziren dantzan, hainbat gaitaz hitz egiteko: feminismoa, aniztasuna edo ekologia, kolorez eta umorez jantzita.

TXINTXARRI

Euskal Jaia, sinbolikoa

COVID-19ak eragindako egoera tarteko, urtero Euskal Jaia antolatzen duten eragileek erabaki zuten ospakizun sinbolikoa egitea urri erdialdean, lasarteoriatarrak baserritar jantzita kalera ateratzera gonbidatuz. Etxeko leiho eta balkoiak apaintzeko deia ere egin zuten.

Berriz ere protestan

Ametsa errealitate bihurtu du herriko gazte talde batek: bizpahiru urte eta gero, boleibol taldea sortu dute berriro. Ostadar SKTrekin jarri dira harremanetan, eta kamiseta urdin-beltzak jantzi dituzte aurten. Asier Acuriola da entrenatzailea. Jubenil-senior mailan irekiera torneoa hasi zuten urrian.

MARIAN ESCRIBANO

TXINTXARRI

Bidegorri sareari kritika

Lasarte-Oria eta Txikierdi bitarteko eraikitzeko egitasmoa onartu izanari "alde onak eta txarrak" ikusten zizkiola adierazi zuen Eguzki Talde Ekologistak, eta gogoratu zati horrek amaitua behar zuela 2017rako. "Gipuzkoako Foru Aldundia urratzen ari da Gipuzkoako Bizikleta Bideen Plana, Donostia-Mutriku osatzeaz hitz egin behar genuenean, Lasarte-Txikierdi zatiaz hitz egiten ari garelako".

OSTADAR ATLETISMOA

Denboraldi arrakastatsua

Naroa Furundarena Urkola (Lasarte-Oria, 2001) atletak bi aste besterik ez zituen izan atseden hartzeko 19-20 sasoia amaitu zuenetik. Urri hasieran 20 urte azpiko Espainiako txapelketan lehiatu zen, eta zilarrezko eta brontzezko dominak lortu zituen. Urri erdialdean lanean hasi zen berriro ere 2020-2021 denboraldiari begira.

Kurtsoa hasi eta hilabetera bildutako testigantzak

LHtik hasi eta unibertsitate-ikasketetara arte, zenbait ikasleren adierazpenak jaso ditu Txintxarri aldizkariak

Maddi Zaldua

Behin eta berriz esan eta entzun ohi dugu etxeko gazteenak erraz moldatzen direla edozein egoera berrira. Hala izan ohi da, moldatu, moldatzen baitira, noski, baina egoera berri horiek sentimendu ugari sorrarazten dizkie. Kurtso berria hasi eta hilabetera, adin desberdinetako ikasleekin hitz egin zuen Txintxarri aldizkariak, jakiteko estudianteek nola ekin zioten ikasturteari.

"Jolasgaraian ezin dugu beste gelako lagunekin jolastu", aipatu zuten LH2 mailako ikasle Markel Perez, Amets Vila eta Unai Berasategik. Guztia "asko" aldatu zela ikusita, egoera berriarekin gustura ez zeudela kontatu zioten Txintxarri-ri. Etxetik atera ezinik igarotako hilabeteak "aspertuta" igaro zituztela azpimarratu zuten.

Ohitzen ari zela, baina errutina arraroa zela. LH5 mailan ikasten ari da Irati Caro. Arraroa bai, baina, behintzat, presentziala:

Markel Aranjuelo. TXINTXARRI

"Nahiago dut eskolak ikastetxean jaso, aurrez aurre, eta ikaskideekin egon; hori asko bota dut faltan itxialdi garaian". Uneoro maskara jantzita eramatea "deserosoa" egiten zaiola nabarmendu zuen, horrek galarazten baitzion, besteak beste, "ikaskideen aurpegiak ikustea".

Oriarte Landaberri eraikinean bigarren urtez ari da Markel Aranjuelo, DBH2 mailan. Etxean egon behar izan zuen bitartean, "ezerosoa eta zailagoa" egin zitzaion ikasketen erritmoari eustea. Behin ikasgeletara bueltatuta, adierazi zuen "egunero" aireztatzen dutela gela, hala egin behar delako, baina horrek eragiten duela zenbaitetan hotza sartzea barrura.

Malen Arzadun DBH3 egiten ari da aurten Oriarte Larrekoetxe eraikinean. "Oso arraroa" da harentzat ikaskideekin ezer elkarbanatu ahal izatea: "Ezin dugu materiala partekatu, ez gureak ez diren gauzak ukitu ez eta guk beste inori ezer utzi"-

Koronabirusa gurera iritsi aurretik, unibertsitateko ikasketak amaitzera Vilniusera joateko asmoa zuen Uxue Anabitarte (Lasarte-Oria, 1999) herritarrak. Ingeniaritza informatikoa ikasten ari da, eta Lituanian atzerriko egonaldia egin ahal izango zuen edo ez, ia-ia bezperan jakin zuen. Joan, eta hamalau eguneko berrogeialdia egin ostean hasi zen apurka-apurka neurria hartzen egunerokoari, koronabirusak atzerriko egonaldi hori erabat baldintzatu zuela ikusita.

Europan ere, pedalkadak

Txirrindularitza probatu zuenez geroztik, urrats ugari egin ditu Asier Pozok (Lasarte-Oria, 2002), Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolan. Garaipen ugari lortu, eta errepidean ibili zen batetik bestera, Europako Pistako Txapelketan lehiatzeraino. Buruntzazpiren maillota urriaren 24an jantzi zuen azkenekoz.



BURUNTZAZPI T.E.

Dominak Berlinen

Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire igerilariak 34. IDM Berlin 2020-World Para Swim World Series txapelketan parte hartu zuen, alarma egoera ezarri zenetik aurrenekoz, urriaren 15etik 18ra bitartean. Lan ederra egin zuen kirolari gazteak: sei domina lortu eta Espainiako bi errekor berri ezarri zituen.

NAHIA ZUDAIRE

TXINTXARRI

TXINTXARRI

Ostalarien protestak kale eta errepidean

Azaroan zehar makina bat protesta egin zituzten Lasarte-Oriako ostalariek, euren egoera "oso larria" zela salatu eta agintariei "benetako konponbideak eta laguntzak" eskatzeko: bi manifestazio herrian barrena, kazerolada norbera bere tabernaren atarian, kotxe karabana... Lasarteoriatarrek bat egin zuten tabernarien aldarriekin eta babestu zituzten protesta ekitaldi horiek.

TXINTXARRI

Lore eskaintza eta ekitaldia memoriaren egunean

Udaletxeko alderdiek "terrorismoaren eta motibazio politikoko beste edozein indarkeriaren biktimak" oroitu dituzte

Txintxarri

Askatasunaren parkean egin beharreko ekitaldia eguraldi goibelak zapuztu zuenez, udal korporazioko alderdietako ordezkariak udaletxe zaharreko arkupetan elkartu ziren "terrorismoaren eta motibazio politikoko edozein indarkeriaren biktimak" oroitzeko: ekitaldi xumea eta lore eskaintza egin zituzten, Agustin Valdiviak adierazpen bateratu bat irakurri eta gero. Giza eskubideen urraketaren "modu guztiak" gaitzestetik abiatuta, memoriak elkarganatzeko eta eztabaidarako guneak sustatu behar dituztela ere nabarmendu zuten memoriaren eguneko agerraldira bertaratutakoek.

Indarkeria matxistaren aurkako aldarriak, kalera

Kontzentrazioak egin zituzten udalak eta Atsobakarreko langileek; Buruntzaldeako neska* gazteek, manifestazioa

Txintxarri

Behemendi Elkarteak antolatutako bisita gidatuan parte hartu zuten zenbait herritarrek. Lasarte-Orian barrena, herriko txokoak, eraikinak horma irudiak eta historia hobe ezagutzeko aukera izan zuten.

Udaletxe berria, apaizetxea, Brigitarren komentua, Mirentxu, Tren Txikia... Herriko hainbat gune historiko bisitatu zituzten, eta ez hori bakarrik: auzo desberdinetako muralak ere ikusi zituzten bisita horretan.

Eskualde mailako manifestazioa. TXINTXARRI

XVII. Akordeoi Jaialdia

Zero Sette Akordeoi Orkestrak musika emanaldi ederra antolatu zuen azaro erdialdean, Adelaida bikotea eta Ad Libitum hirukotea gonbidatuta Manuel Lekuona kultur etxeko auditoriora. Musika klasikotik hasi eta gaur eguneko musikara bidaia egin ahal izan zuten ikus-entzuleek.

TXINTXARRI

TXINTXARRI

Udaberrikoa, udazkenean

Normalean, udaberrian antolatu ohi du bertso saioa Ttakun KEk, udalarekin elkarlanean. Aurten, ordea, COVID-19ak hala eraginda, udazkenean egin zuten emanaldi hori: Ane Labaka, Miren Artetxe, Alaia Martin eta Miren Amuriza aritu ziren bertsotan Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioan.

Bikaintasun Saria

Bikaintasun Sariak ematen ditu urtero Radio San Sebastianek. Kategorietako batean, *Euskara*-renean, Ttakun Kultur Elkarteak irabazi du saria aurten, Euskaraldiaren sorrera prozesuan hazia jarri eta 29 urte hauetan euskararen eta euskal kulturaren alde egindako lanagatik.

TXINTXARRI

TXINTXARRI

Saharari elkartasuna

Azaroan sortu berria zen Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldearen deiari erantzunez, hamarnaka lasarteoriatarrek adierazi zioten atxikimendua Mendebaldeko Saharan bizi diren herritarrei, Okendo plazan antolatutako elkarretaratzera joanez. Herrialde horren eta Marokoren arteko su-etena hautsi egin den honetan, NBEk oraindik ez du autodeterminazio erreferendumera deitu.

MAIALEN CHOURRAUT

Tokio helburu

Ezohikoa izaten ari da 2021ean Tokion (Japonia) jokatuko diren Joko Olinpikoetarako prestaketa palista lasarteoriatarrarentzat: lehiaketa gutxitan parte hartzeko aukera izan du hilabete hauetan. Azaroan Munduko Kopako proba jokatu zuen Paun (Frantzia), eta bosgarren denbora onena egin zuen, 120.30 segundoko denbora eginda.

Brontzea debutean

Aitor Manso herritarrak hirugarren postua eskuratu zuen Euskadiko Mendiko Igoeren Txapelketan, bere lehen urtean. Nahiz eta lasterketa gutxi lehiatu ahal izan COVID-19agatik, hurrengo urterako esperientzia bildu du eta datorren denboraldirako moldaketetan pentsatzen ari da.

AITOR MANSO

Asier Suberbiola. A. SUBERBIOLA

"Aitortu behar zaio musika herrikoiari daukan balioa"

Irungo Udalak aurten abiarazitako Iñigo Muguruza ikerketa beka irabazi berri du Asier Suberbiolak (Lasarte-Oria, 1978), eta haren abesti esanguratsuenetan oinarrituta, material didaktiko berezia osatuko du, Txintxarri-ri kontatu zionez. Bi hamarkada daramatza biolinarekin musika estiloen arteko zubiak eraikitzen aupaQUARTET edota Asier Suberbiola Swing Trio taldeetan, eta musika eskoletako ikasleen eskemak apurtzen biolin irakasle bezala.

Arteaga II.ak, txapela

Axier Arteaga herritarrak bigarrenez jantzi zuen Promozio mailako buruz buruko txapela, Elordiri 12-22 irabazita. Urduri aritu ziren biak, euren joko onena ezin erakutsiz, baina lasarteoriatarrak hobeto hartu zion neurria finalari eta bigarrenez altxa zuen txapeldun garaikurra, 2017an gailendu eta hiru urtera.

TXEMA VALLES

Otsailetik sukarra eta eztarriko zein buruko mina pairatzen ditu Bego Toquerok. TXINTXARRI

Bego Toquero: "Diagnostiko bat behar dugu, azalpen bat"

Herritarrak COVID-19 iraunkorra duela susmatzen dute, baina oraindik ez du diagnosi argi eta bakar bat jaso

Maddi Zaldua

Bego Toquero herritarrak azaro erdialdean kontatu zion Txintxarri-ri nolakoak izaten ari ziren azken hilabeteak: otsailetik, buruko zein eztarriko mina dauka, eta sukarra ere bai, baina negatibo eman du COVID-19a hautemateko egin dituen proba guztietan. Hori iritsi bitartean, ondoezik segitzen du herritarrak. Bolada hobeak eta okerragoak izaten ditu: nekea, giharretako mina eta febrikulak. Antzeko sintomak dituzten pertsonek osatutako kolektibo bateko kidea da. Norbaitek haiekin kontaktuan jarri nahi izanez gero, idatzi behar du *covidpersistente.euskalherria@gmail.com* helbide elektronikora.

DANI karrozeria

Trebeak gara
kolpe handiak konpontzen

- Kabina labeduna
- Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
- Tapizatuen garbiketa

2021 zoriontsua opa dizuegu!

Zirkuitu ibilbidea 12
20160 · LASARTE-ORIA
Tel. 943 37 14 40
Mugikorra: 608 39 18 85
carroceriasdani@carroceriasdani.com
www.carroceriasdani.com

Aldatutako ohiturak 365 egunez mantentzeko

Aurtengo Euskaraldian 2.105 herritarrek eta 65 erakundek astindu dituzte hizkuntza ohiturak azaroaren 20tik abenduaren 4ra. Ariketa horri ekin aurretik, Gaztealdian parte hartu du Xabier Karril herritarrak, zortzi egunez euskara hutsean bizitzeko erronkari helduta

Txintxarri

Zailtasunak zailtasun, Euskaraldia egin ahal izan da aurten Euskal Herri osoan, baita Lasarte-Orian ere. Antolatzaile nagusiek, Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak, "balorazio positiboa" egin dute, eta azken hilabeteetan egindako lana azpimarratu, datuak ematearekin batera: 2.105 herritar izan dira *ahobizi* edo *belarriprest*, eta 65 entitatek sortu dituzte barnezein kanpo-ariguneak, gune horietan euskaraz lasai aritzeko.

Parte hartu duten norbanakoen profila honako hau izan da: 35 eta 49 urte arteko emakumezko *ahobizia*. Nabarmentzekoa da 2018ko edizioan hizkuntza-ohiturak astindu ez zituzten 424 herritar berrik hartu dutela parte ekitaldi honetan, guztien %20. Horrekin batera, antolatzaileek adierazi dute herrian hizkuntza-ohiturak astintzeko ariketa sozial hori egin den hiru saioen artean –2016ko Euskararen 9. Maratoian eta 2018ko eta 2020 Euskaraldietan– 4.300 pertsona inguruk parte hartu dutela. "Lasarte-Orian euskara ulertu behintzat egiten duten 16 urtez gorako herritarren %50a suposatzen du, gutxi-gorabehera".

Egindako lana balioan jartzeaz gain, udalak eta Ttakunek gogoratu dute "benetako Euskaraldiak" ez dituela irauten hamabost egun, urteko 365ak baizik. Euskararen X. Maratoia ondo bidean 2021. urtean ospatuko dela ere oroitu dute antolatzaileek.

2.105 herritarrek eraman dituzte Euskaraldiko txapak soinean aurten. TXINTXARRI

Gaztealdian murgilduta

"Euskaraldira begira motorrak berotzeko asmoz" parte hartu zuen Gaztealdia ekimenean Xabier Karril herritarrak, azaro erdialdean: Euskal Herri osoko bederatzi gaztek euskara hutsean bizitzeko konpromisoa hartu zuten zortzi egunez, euskarak egunerokoan aurki ditzakeen talka eta arnasguneak azaleratze aldera. Esperientzia hori bizi izan eta aste batzuetara Txintxarri-ri kontatu zionez, egun horietan aldatutako ohiturak "egunero" praktikan jartzen segitzea da haren asmoa.

Herri mailan ere mugitu dira gazteak: duela bi urteko lanari segida emanez, batzordea sortu dute Nerabeen Euskaraldia bultzatzeko ikastetxez ikastetxe. Euskararen Nazioarteko Egunerako, abenduak 3, esate baterako, bingo musikatua egin zuten, egun hori ospatu eta Euskaraldiari amaiera emateko.

TXINTXARRI

Bizipoza, herritik Lesbosera

Miren Bardaji herritarrak urte eta erdi pasatxo daramatza Greziako Lesbos uhartean, han bizi diren errefuxiatuak ahalduntzeko hainbat egitasmo burutzen. Proiektu horiek babeste aldera, Bizipoza elkarteak eta haren baitako elkarte ugarik *Bizipoza Lasarte-Oriatik Lesbosera* elkartasun jaialdia egin zuten kultur etxean. Herriko hainbat sortzaile ere igo ziren oholtzara.

TXINTXARRI

Arraunari aitortza

Lasarte-Oriako Udalak eta Michelin fundazioak Antonio Oliden, patroi, arraunlari eta entrenatzailea omendu zuten Manuel Lekuona kultur etxean, baita berarekin arraunean aritutako eskifaietako kideak ere. Ekitaldian *Ziaboga* lana proiektatu zuten.

Ekologia eta klima krisiaz

Ezezagunerako bidaia. Mundua, klima eta ekologia krisian liburua aurkeztearekin batera, mundua jasaten ari den klima eta ekologia krisiaren inguruko datuak eskaini zizkien herritarrei Iñaki Petxarroman kazetari lasarteoriatarrak, osasun zentroko gela balioanitzean Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak antolatutako hitzaldian.

TXINTXARRI

Atsobakar egoitzako langileek, ekimena eta alkateari eskaera

Atsobakar zahar egoitzako langileen borrokak aurrera darrai. Egoitza aurrean biltzen jarraitzen dute asteazkenero, eta herriko kaleetatik barrena euren aldarrikapenak egiten. Bi urtez euren protesta eta ezinegona kalera atera dute, eta, abenduan, zahar egoitzak dituzten herriei gatazka konpontzeko babesa eskatu diete.

Langileen ordezkariak. TXINTXARRI

TXINTXARRI

Berriro epaituko dituzte

Abenduan ezagutarazi du Espainiako Auzitegi Gorenak Bateragune kasuan auzipetutako bost lagunak, Rafa Diez lasarteoriatarra barne, berriz epaitzeko erabakia. Horri erantzunez, dozenaka herritar elkartu ziren Okendo plazan, *Demokrazia BateraAurre* zioen pankarta atzean. "Duela 11 urte sustatu genuena, duela 11 urte akusazio gisa zegoena, errealitate bihurtu da", adierazi zuen Diezek.

TXINTXARRI

Leroy Merlin, gertuago

Lasarte-Oriako A-33 Teresategi eta Donostiako AÑ.10 Recalde lur-eremuak bateratzea onartu zuen udalbatzarrak abenduko ohiko saioan, PSE-EE eta EAJ-PNVren aldeko bozkekin. EH Bildu eta ELOP, berriz, horren aurka agertu ziren. Urrats horrekin, gertuago dago Leroy Merlin multinazionalak saltoki bat eraikitzea lursail horietan.

Mari Azpiroz Murua. GOIZANE LOPEZ ELIZONDO

Inguruaren ezagutza eskasari aurre egiteko tresna

Gure Basoak liburua ondu du Aranzadi elkartearen Botanika sailak. Kideetako bat da Mari Azpiroz Murua (Lasarte-Oria, 1979) lasarteoriatarra. Txintxarri-ri kontatu zionez, kezka agertu dute sail horretako lagunek, ikusten baitute apenas ezagutzen dugula gure ingurune naturalean zer dagoen. Horri aurre egiteko helburuz osatu dute gida: hiru atal nagusi eta bi gehigarri ditu. Bigarren argitaraldia prestatzen ari dira gaur-gaurkoz.

Abendu hasieran aurkeztu zuten egitasmoa Buruntzaldeako Gazte Sortzaileek. TXINTXARRI

Eskualdeko sortzaile gazteen sarea, gero eta trinkoagoa

Herritar gero eta gehiago bat egiten ari dira Buruntzaldeako Gazte Sortzaileak egitasmoarekin; ateak zabalik jarraitzen du

Iñigo Gonzalez Sarobe

Apiril erdialdean greba digitalera deitu zuten kulturgintzako hainbat eragilek. Eskualdeko zenbait gazte sortzaile elkartu, eta deialdiarekin bat egin zuten orduan. Horren ostean, honako galdera hau egin zieten euren buruei: "Zergatik ez gara saretzen?". Igaro dira hilabete batzuk ordutik, eta aukera hori gauzatu egin da: gero eta sare trinkoagoa osatzen ari dira gazte sortzaileak, Lasarte-Oriako zenbait barne. Gainera, nabarmendu dutenez, ateak zabalik daude.

Abenduaren 3an aurkeztu zuten egitasmoa herri mailan, osasun zentroko gela balioanitzean. Hainbat diziplina artistiko uztartu zituzten.

Eguberrietan, ekitaldirik ez

Beste alor askotan bezala, COVID-19ak bete-betean eragin du Gabonetan ospatu ohi diren kirol ekitaldietan. Aurten ez dugu gozatu ez San Silvestre lasterketa herrikoiaz, ez Ostadar SKT antolatzen duen 3x3 txapelketaz, ez eta Eguzki Areto Futbolaren Eguberrietako Txapelketaz, besteak beste.

TXINTXARRI

Esperientzia berri bat

LOKE elkarteko judoka Asier Sagastik (Lasarte-Oria, 1992) Espainiako Txapelketa jokatu zuen hilabete hasieran, Madrilen. Ordura arte bizitako lehiaketekin alderatuta, esperientzia "guztiz desberdina" izan zela kontatu zion Txintxarri-ri. 24 urte daramatza judoa egiten. "Gorputzak erantzun bitartean" jarraituko du.

TXINTXARRI

txintxarri

Txintxarriko lantaldeak 2021 zoriontsua opa dizue

Hurrengo Txintxarri paperean

urtarrilaren 8an argitaratuko dugu

Bitartean, jarraitu herriko albisteak sarean: www.txintxarri.eus

Ttakun Kultur Elkartea

TXINTXARRI

Luzaroan gogoratzekoa

Ttakun Kultur Elkarteak antolatuta, udalarekin elkarlanean, Gozategi talde oriotarrak denbora luze batean oroitzeko moduko kontzertua eskaini zuen kultur etxean, santomas egunean, abenduak 21. Errepertorioko abesti ezagunenak oholtzaratu zituen Gozategik, ikus-entzuleek haien besaulkietan eserita gogotik gozatzen zuten bitartean.

TXINTXARRI

Taldean josteko ohiturari eusten

Pandemiak eragindako egoerara moldatu behar izan dute, baina aurten ere elkartu dira zenbait herritar Ttakun KEk antolatutako jantzi tradizionalen ikastaroan. "Izugarri" gozatu dutela azpimarratu zuten guztiek, baita Ione Artola irakasleak ere. Jantzi berriak sortzeaz gain, ahaideenak zirenei beste erabilera bat eman dietela jakinarazi zuen Artolak.

Aurten ere etorri dira Lasarte-Oriara

Urteroko ospakizun berdina egin ez badute ere, etorri dira Olentzero, Mari Domingi eta lagunak Lasarte-Oriara, herriko haurrei (eta gurasoei) zoriontasuna banatzera. Auzoz auzoko bisitak egin dituzte aurrena, eta ikuskizun koloretsua gero, Manuel Lekuona kultur etxean. Gauean gogotik egin zuten lana opariak banatzen.

Gabonak nola igaroko dituzten kontatu diote Txintxarri-ri

Zenbait herritar eta komertzioren testigantzak jaso zituen aldizkariak 2020ko Eguberri ezohikoen atarian

Txintxarri

Izan ote du ohikotik ezer 2020ak? Herritar eta establezimenduekin hitz egin du Txintxarri aldizkariak eta, denak ala denak, bat datoz erantzunarekin: urte arraroa izan dela, berezia, ezohikoa, amaitzear dugun hau. COVID-19ak eragindako egoera dela-eta, urtea hankaz gora jarri eta eguneroko berrira egokitzea beste erremediorik ez dute izan, eta, urte amaiera ere, orain artekoekin alderatuta gutxienez, ezberdina izango da gehienentzat.Urtea bukatzeko ospakizunetan murgildu gara, eta horiek ere ez dira urterokoak izango etxe askotan. Egoerak hala behartuta, eta koronabirusari aurrea hartzeko jarraitu beharreko derrigorrezko neurriek, egoera berrira moldatzeko beharra ekarriko dute familia batera baino gehiagora. Testigantza horiek jasotzen dituen artikulua *www.txintxarri.eus* atari digitalean irakur daiteke oso-osorik.

Herritarrekin eta komertzioekin hitz egin du Txintxarri-k. TXINTXARRI

Lumak zorroztu, eta 2020. urteari buruz hausnartu dute hainbat zutabegilek

NEURE KABUZ

Urtea amaitu aurretik argitaratu duen azken zenbaki honetan, bukatzear den 2020ak zer eman duen kontatzeko erronka luzatu die Txintxarri-k haren kolaboratzaileei. Hona hemen Gorka Alvarez, Maider Galardi, Gorka Lasa, Nerea Segura eta Asier Odriozolak kontatutakoa

2020

GORKA ALVAREZ

Hona irakurle, urtearen laburpen arin, zoro eta sinplista. Umiltasunaren erretratu elitista. Errima traketsen kontzertu egozentrista. Nire interes batzuekin osaturiko zutabe anitza.

ILBELTZA. Urte berri on! Sebastian… Txooootx! Azkenak denbora luzean. Entzun al duzue… Wuhanetik dator notizia, birus bat heldu dela genioz bizia.

ZEZEILA. Hara! Inhauteriak! Ikusi, ikusi horiek; zientzialari txinatar zoroz mozorrotuta mamu harrapariak beharrean, birus harrapariak dirudite. Zein dibertigarria!

MARTIA. Eskiaren hilabetea. Badatorrela, badatorrela elur jauzia. Martxoaren 13an erabakia.

GORRAILA. Kopa finala. Eta Sevillan Giraldilla, ipurdiko… Ez Athletic ez Reala, baina bertan izango da koroa erreala edota birala?

OSTOILA. Osasun langileei txaloka pasa ditugu asteak. Balkoiak arrapataka utzi eta hartu dugu kalerako bidea. Musukoa bai? Musukoa ez? Pello Joxepe tabernan dala… Tooo musukoa sari moduan. Balkoietan polizia, gure herrian gutxi genituen eta gehitu diegu laguntza bizia.

GARAGARILLA. San Pedroak pott! Hauteskundeak iparraldean eta hemengoak ere usainean. Interesak tartean, birusak besapean dakartzan bozkak abiadura bizian.

GARILLA. OPORRAK! Oporrak! Oporrak? Oporrak bai edo oporrak ez? Hauteskundeak bai, oporrak ere bai, kapitalaren bizi nahi. Herriko emaitzak aldaketaren lehen urratsa izango direlakoan naiz, baina tartean badaezpada oporretan izango naiz.

AGORRILA. Hondartza, mareak, jendea, kotxea, trena, kotxea, autobusa. Hondartzarik ez, kotxeak bai, garraiobideak bai noski, lanerako bereziki bai.

BURUILA. Kontxan arraunean, jendea etxean, bokata eta sagardoa egongelan. Kirolaren esentzia bertan behera. Gazteen aisialdi aukera osasuntsuena haizea hartzera. Nork hartuko dio zentzugabekeria honi izaera? Ikasturte hasiera, irakasleak lanera, beste guztiak lez egin beharretan murgiltzera. Kontuz birusa! Arriskuan gaude baina ondoan daukagu errausketa, bigarren mailan orain, baina zaborra erreta. Tourra martxan da Frantzian, jarraian etorriko dira Giroa eta Espainiako itzulia. Zein arraroa den bizitza.

URILA. Lasarte Oria EZ kros herrikoia. Giroa orain? Herrian falta dena da giroa, krosak sortzen baitu data honetan zirrara.

GOROTZILA. Kalera irten gara erabiliz euskara. Euskaraldi gaingabetua urte honetakoa. Espainiako itzulia? Garai honetan eta Euskal Herrian. Birusak zoratu gaitunaren zalantzarik ez da. Ostadarren txirrindularitza porra ez irabazteko aitzakia galanta. Itzuli bakoitza noiz den ezin jakin antza.

NEGUILA. Gure olentzero, gure olentzero… Ba al dator? Tabernak itxita, gero irekita, gero itxita. Ikazkinak duen ardoarekiko zaletasunarekin zalantzak ez dio asko lagunduko aurtengoan. Opariak ahaztuko ote ditu baita?

Hau da hau hitz anabasa, pipermina, gatza eta saltsa. 2020 urte aldrebes honen laburpen garratza. Guztiok irentsi behar izan dugun zirkua eta dantza. Urte berri onik norbaitek izan ote duen zalantza. Horrela opa dizuet guztioi, inoiz baino gehiago zorionak eta zintzo pasa.

Hau da urte honen laburpen eskasa. Badator hurrengoa, gora Osasuna eta Nafarroako baratza!

"Zein urte luzea(k)…

MAIDER GALARDI

…Dortoken mendean" zioen Gorka Urbizuk Berri Txarraken Payola diskoko kantu batean. Akaso, hori izan da 2020a. Dortoken urtea. Ez da debaldeko metafora. Luze joan dira 365 egunak. Oskolpean babestu gara ahal genuenok; eta, beste batzuek, bizkar gainean eraman dute motxila martxotik hona. Badirudi neke pandemikoak arrastaka ekarri gaituela urtearen hondarrera. Bazenekiten dortokek sekulako memoria dutela? Guri ere geldituko zaizkigu garunean iltzatuta: telelana, kontziliazioa, ERTEa, ZIUa, konfinamendua, burbuila…

Bakoitzak pilatu ditugu aurrera ateratzeko ezinbesteko ondasunak eta bizipenak gure oskoletan, baina abailduta iritsi gara abendu amaierara. Nik, esate baterako, burua eta hanka-besoak ezkutatu nahi ditut bizkar gaineko etxetxoan. Hotz ari du kanpoan eta goxo nago estalki barruan. Hor kabitzen zaizkit krisi honi aurre egiteko gutxienekoak: babes sarea, bizitoki eroso bat, etxetik lan egiteko nahikoa baliabide, eta, beraz, soldata bat bermatzen didan enplegua.

Burua atera dut babestokitik eta ikusi ditut beste dortoka batzuk pasieran. Nirea baino oskol handiagoa —baina ez horren sendoa— dute, ordea, bizkar gainean: lana galdu dute zenbaitek eta alokairua ezin ordaindu egon dira beste batzuk hilabeteotan. Beren senideak ezin bisitatu gelditu dira asko, dela espetxean, dela zaharren egoitzetan, dela ZIUan. Larru gogorra dute dortokek, hilabete hauetan osasun krisiak eragindako eztandari aurre egin behar izan diotenei lakartu zaien beste. Hor dira zaharren egoitzetako langileak, garbitzaileak, etxez etxeko zaintzaileak, medikuak, erizainak, irakasleak, ostalariak. Badira etxea arriskugune bihurtu zaienak ere. Zer gertatzen da ez bazara familia nuklearraren teilatupean kabitzen? Zer gertatzen da zure bizitokiak indarkeriazko egoerak iraunarazten baditu? Zilegi al da oskola bide bazterrean aparkatzea?

Martxo erdialdean larrituta bezain harrituta pentsatu genuen gauzak aldatzeko une aproposa zatekeela pandemia. Baina nahikoa lan norberaren oskol barnean eroso sentitzearekin, eta orain Berri Txarraken kantu bera datorkit gogora: "Irudimen tona baten beharra daukat edozeri iraultza deitzen jarraitzekotan". Amestu genituen bizi unitate berriak, elkartasun sareak, lan eskubideak hobetzeko grebaldiak, osasun, hezkuntza eta oinarrizko errenta unibertsala herritar guztientzat, osasun larrialdia dela eta presoak hurbiltzea… Eta ohartu gabe abendu amaierara ailegatu gara, baina zaharren egoitzetan segitzen dute protestek, presoak urrun daude oraindik, familia nuklear eta heteronormatiboen logikan jarraitzen dugu biltzen, eta, halere, zenbat kostatzen zaigun geure oskolaren berotik burua ez ezik hankak eta besoak ateratzea, eraldaketa mugiarazteko.

Inork ez zuen esan egun batetik bestera aldatuko genituela gauzak, eta badakigu dortokak zein geldo mugitzen diren, baina zenbat literatura behar da azaltzeko beharbada erlojuek baino mila bider gehiago balio dezakeela badoan denborak?

Zein urte luzea.

Konspiranoia

ASIER ODRIOZOLA

Urteko azken egunotan gure arima osoa prestatzen hasten da elkarri urte berri ona opa izateko. Ohitura bat izaten da, errituala, mekanikoa maiz. Iruditzen zait oso gutxitan pentsatzen dugula berez eta benetan urte berriak zer ekarriko digun. Guztioi opa digute, abenduaren azken arnasarekin batera, urte ona izan dezagula, baina gero urteak nahi duena ekarriko digu edo guk nahi/ahal duguna egingo dugu ate joka datorren urtearekin. Ez naiz 2021ean pentsatzen ari, badoan eta historiko bihurtu den 2020an baizik. Inor gutxik pentsatu zuen, urtezaharreko poteoaren alegrantzia txoroaren lausoan, zer zekarren itxura polita zuen 2020ak: ohitura guztien aldaketa, aisialdiarena bereziki, etxealdi luze eta astuna, musukoa jantzita etxetik atera beharra, eskuak ohikotik askoz ere haruntzago garbitu beharra baina batez ere heriotzak. Ehundaka izan dira gurean, milaka gertu eta ehun milaka mundu osoan COVID19-ak bultzata hil direnak. Horregatik izan da harrigarri eta mingarri askoren jarrera ukakorra. "Ez da gaitzik" diote batzuek; "ez da dioten bezain larria", diote beste batzuek; eta "urtero gripeak ere hiltzen du jendea", diote beste askok. Ez dut ulertu hasiera hasieratik jarrera hori. Garbi dago gauza asko ez direla behar ziren bezala kudeatu, arerio berri bati erantzun beharrak justifika lezakeen kudeaketa aldakorra baina "konspiranoia" jarrera umekeria iruditzen zait, ospitaletatik datozen berriek biluzik uzten duten argudio eskasa, pelikula gehiegi ikusi dituenari bururatzen zaizkionak. Orain 100 urte izan zen azken pandemia larria eta hemendik 100 urtera, bete-betean harrapatu gaituen hau aztertu eta aipatuko dute, azpimarratuz inozo batzuk errealitatea ukatzen zutela, birusarekin kutsatu eta zaintza berezietako gela batean sartzen zuten arte. Ez diot hori inori opa, baina batek baino gehiagok merezi du halako esperientzia labur bat itzulerakoan umil-umil ibiltzeko. Horiei ere 2021. urte zoriontsua opa diet, noski.

Iragan hurbila

GORKA LASA

Urrutiko Txinan gertatzen ari zela bai, baina inor konturatzerako genuen pandemia malapartatu hau geurean ate joka. Sartu, eta bertan itxita geratzera behartu gintuen, konfinatuta.

Azken urteotan Euskal Zirkoa ibili da herriz herri, zirkoa ere euskaraz egin daitekeela erakutsiz, eta garai hartan zirkoa balkoiez balkoi ibili zela esan behar. A ze espektakulu sorta: aerobic klaseak, ezkontzak, pintxo poteak, jaialdiak...

Euskaldunak ez gara konforma errazak, denok ados jartzea asko kostatzen zaigu, ezinezkoa dela esan gabe; baina itxialdiak gauza batean, behintzat, lortu zuen hori gainditzea; zortzietan denok irteten ginen txalo egitera balkoietara artalde gisa. Ez zuen asko iraun, noski, baina miraritxoa gertatu zen behintzat.

Euskaldunak elkar agurtzekoak ere bagara: gure "Epa!" ezagun egin zuen iragarki batek, pentsa! COVID19-ak eskua ematea kutsagarri gerta litekeela-eta, norbaiti ukalondoa elkar ukitzea bururatu zitzaion, irudi xelebreak utziz. Ez dakit nola ez dugun ipurdia elkar igurtzitzen, garbi asko baitaramagu, ikusi besterik ez dago zenbat komuneko paper gastatu dugun.

Ordutegi eta arau zorrotzak jarri zizkiguten itxialdian, ezin atera nahi genuen ordu eta lekuetara. Etxean txakurra zutenek malgutasun handiena izanik, maskotaren egin beharrak egitera ateratzeko aitzakiarekin, batzuek herriari buelta ematen zioten; sekula hainbeste ibili gabekoak ere izango ziren.

Musukoa beharrezkoa eta derrigorrezkoa dugu edonon eta edonoiz. Gure parte bilakatu da denbora gutxian, giltzak, kartera, klinexak eta mugikorra bezalaxe. Forma eta estilo desberdinetakoak aukeran, modaren eraginpean janzkerarekin konbinatu daitezkeenak.

Garai berrietan, ohiturak ere berriak. Toki itxietan egoteko jende kopurua mugatu egin dute, hau da ilarak sortzeko arrazoietako bat. Dagoeneko ilarak egitera ohitu gara; farmazian, supermerkatuan, okindegian, edonon lerroan eta distantzian egon behar. Tanatorioan ere, bizidunen ilarak ez ezik, hilkutxen ilarak ere badaude.

COVID19-a behar baino jende gehiago eramaten ari da, behar baino lehenago eta behar baino modu ankerragoan. Askok jainkoari erregutuko diote egoera hau lehenbailehen pasa dadin, baina beste asko jainko berri baten bila ariko dira, Marradona hauts bihurtu baita.

Pandemia hau gerrate moderno bat omen da, tirorik gabeko mundu gerra bat. Baina ez denean, Saharan 45 urtetako gatazka isil eta ahaztu baten ondoren gerra piztu baita. Eta han, independentziaren aldeko benetako tiro hotsak entzuten dira.

Zutabe hau idazten ari naizela, inuxente eguna dela jabetu naiz, eta ez dakit urtea bera inuxentekeria bat ez ote den.

Pasa dira egunak, pasa dira hilak. Ez dakit egin dugun aurrerantz ala atzerantz, baina haiek ez dira berriz itzuliko. Saiatu beharko dugu gogoz, eta izan dezagun helburu datorren urtea bizitzea.

Eta zurea, nolakoa izan da?

NEREA SEGURA

Nolakoa izan da zuretzat 2020. urtea? Horixe da Txintxarri aldizkariaren proposamena, ta horixe da, bai, gaurko erronka. Nondik hasiko naiz? Ba, urteko argazkiak berrikusten nere Instagramen. Lan-erronka erakargarriak izan ditut, eskarmentu-berriak, bizitzarako ikasketa garrantzitsuak, aldaketa handiak. Beldurra ere pasa dut, baten bat faltan bota dut eta negar egin dut. Distantziak, isolamenduak barrunbeak mugiarazi dizkigu; baina urteko balantzea eginda, arriskatu eta irabazi dut. Irakaspenak gogorrak izan arren, urteari eskertuta nago. Eta zurea, nolakoa izan da?

Itxialdiak gure kontsumitzeko era hankaz gora jarri zuen, eta dirudienez, gure ohiturak aldatu ditu. Sukaldaritzarekiko harremana ere aldatu du. Lehen egunetako beldurrak merkatuetako apalak garbiturik utzi zituen. Irina eta legamia ez ziren behar bezala hornitu; bereziki, irin findua. Izan ere, etxean ogi osasungarria egiteko asmoa etxeko gozogintza bihurtu zen: bizkotxoa, opiltxoak... zenbatero izan ziren zure etxean? Baina apal guztiak ez ziren garbitu, denok jaso genuen brokoliz betetako apalen irudiak. Kontsumitzaileen asmoa: sukaldean gehiago aritzea, kirol gehiago egitea eta ohitura osasungarriak jarraitzea zen; errealitatea, aldiz, kontrakoa izan da. Jarduera fisikoaren murrizketa gertatu da eta Basque Culinary Centerreko Innovation sailaren datuen arabera, gozoen kontsumoaren % 50 igoera gertatu da, besteak beste.

Kontsumitzaile gehienak sozialak dira, janaria da biltzeko duten aitzakia ezin hobea (aurten ia-ia ezinezkoa); baina emozionalak deiturikoak, beren aldartearen arabera gidatzen direnak, bor-bor daude. Erosketen datuak aztertzean zizka-mizken eta ultraprozesatuen kontsumoa igo da. Aitzakia da tabernetan kontsumitzen zena etxean kontsumitu dela; azalpena, ordea, azken hauek ez dutela bizi urterik egokiena. Hala ere, jakin, mokadu horiek aukeratzeak eragin kaltegarria izan duela aldartean. Horien artean zaude? Azken batean, etxean hainbeste denbora igarotzeak ekarri du: gozogintza gehiago prestatu-kontsumitu (% 85ak egunero jaten du), delivery edo take-away gehiago erabiltzea (momentu sozialak faltan ez botatzeko), energia gutxiago gastatu (komuneko paperaren erronkak ez dira nahikoak izan kirola mantentzeko) eta afarien ondoren mokoka eta garagardo gehiegikeriak (lo okerragora eramaten duenak).

Dena den, zer nahi dugun jakiteko balio izan digu eta kontsumitzale-zorrotzak bihurtu gaitu. Erosketak maizago egin dira eta 0 km-ko produktu gehiago kontsumitu dira, bai tokiko eta bai online merkataritzan. Elikagarrien jatorria ezagutu dugu, baina hemengoak izateak, ekologikoagoak izateak ez ditu nutrizionalki osasungarriagoak egiten. Beraz, tokiko-ekonomia sustatzen saiatu gara (eskerrik asko), baina zer erosi ikastea falta zaigu: haragi gorri eta prozesatu gutxiago, eta fruta-barazki askoz gehiago; % 20 soilik iristen baita gomendioetara.

Landu, elikatu, babestu: elkarrekin. Hasten den urte honetan, gardentasun handiagoa eskatuko dugu. Landareetan oinarritutako elikagaiak. Influencer-en artean iraultza gertatuko da: irizpiderik gabe saltzeak sinesgarritasuna kendu die, eta ekoizle txikiak izango dira orain gure preskriptoreak. Osasunaren fokua inmunitatean jarriko dugu, baita lortzen laguntzen diguten mantenugaietan ere. Ba al dakizu zein izango den 2021eko kolorea (pantone-a)? Horia. Energia kolorea, alaia, gure arreta harrapatzen duena. C-, A-bitamina eta potasioa duten elikagaien kolorea da, eta gure inmunitate-sistema indartzen dutena. Kasualitatea? Gure gogo-aldartea ere hobetzen saiatuko gara, osasuna kaltetzen ez duten zentzumen-hobekuntzekin; beti ere, ukitu exotiko batekin, seguruenik, afrikarra. Eta ahal bada, etxera ekar gaitzatela.

Lasai izan, bat-batean, hasiera berriaz ohartaraziko zara; eta irribarrea, berriro ere, zure bizitzaren jabe bihurtuko da (*Acción Poética*). Olatzek dioen bezala, irekita eduki zure emozioen atea.

Maite BETELU

- Gestoria
- Aholkularitza
- Inmobiliaria zerbitzuak
- Aseguruak
- Etxebizitzen administrazioa

aterpea

2021 zoriontsua opa dizuegu!

Aralar plaza 4 behea, Lasarte-Oria • Tel.: 943 36 48 86 • www.mbetelu.com

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

Ttakun Kultur Elkartea

zuk 54€ urtean ordaindu

guk Euskara eta kultura sustatuko dugu

Errenta aitorpenean %20ko kenkaria izango duzu

URTARRILAREN 10a baino lehen bazkide egiten bazara otar baten zozketan sartuko zara!

Izen-abizenak: _____

NAN: _____ ***Jaiotze data:*** _____

Helbidea: _____ ***Herria:*** _____

Telefonoak: _____

e-maila: _____

Kontu korrontea (IBAN): _____

Bidali postaz edo utzi bulegoan:
Geltoki kalea 4, behea 20160 LASARTE-ORIA

On-line egiteko:
www.txintxarri.eus/bazkidetu

Data eta Sinadura

☐ *Ttakun Kultur Elkarteak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailez*

Ttakun kultur elkartearen izenean emandako datuak bazkideen kudeaketarako erabiliko direla adierazten dizugu: kudeaketa administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen partehartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkidetzak irauten duen bitartean edota betebehar legalak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonei eskainiko betebehar legala dagoen kasuetan ezik. Honetaz gain, edozein momentutan egikaritu daiteke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, oposizio, mugatze eta eramangarritasun eskubidea, TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiria aurkeztuz, edo posta elektroniko bat bidaliz datubabesa@ttakun.eus helbidera.

Informazioa eta bazkidetzak: ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48

Orain inoiz baino gehiago... Zure erosketak bertako dendetan!

LASARTE-ORIAN BIZI,
LASARTE-ORIAN EROSI

aterpea

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO

Euskadi, aurrelana, bien común
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

Zozketa

Urbil Gabonetako Saskia

50” Tv, bizikleta, erlojua, eraztuna, loteria, kolonia, arropa, oinetakoak, aisia…

Saski osoa ezagutu ezazu urbil.es-en.

urbil

Gure **doako Urbil App**-an izena-eman dezakezu, edo, nahiago baduzu, gure Bezeroenganako Arreta Gunean lagunduko zaitugu. Zozketaren oinarri legalak **urbil.es-en**

App Urbil
Google Play App Store